

Arrasate

P R E S S

1995eko
Azaroak 17
267. zenb.

KULTURA

Corazon de Encina
egoitzaren
bigarren urtemuga

KIROLAK

Pako Bedia
Numanciako
jokalaria

ELKARRIZKETA

Justa Montero
emakumearen
egoeraz hitz egiten



**Ikerlanen
euskaraz**

ALTZARIAK *Berango*

**5 URTEKO
GARANTIAZ**

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA



- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

*Gainera, orain,
Berangon
erositako
altzariak doan
lor ditzakezu!*

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92

URTEKO AUKERA

**Zure turismoa
CHAPIME TAILERRAK-en
erosten baduzu...**

- Aparteko deskontua izango duzu
- Gainera zure erosketa ospatzeko opari bat jasoko duzu
- Eta zure ametsak abenduaren 22ra arte bakarrik atzeratzeko aukera izango duzu



Ezin duzu aukera hau pasatzen utzi!

*Eskaintza hau stockean dauden autoentzat da baliagarria.



Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE


Unibertsitateko tirabirak

Arrasateri buruz idazten dut gehienetan, bertako tonikak gogaitzen bainau, aisialdi eta kultura, eskaintza paregabe horrenganako inplikazio eta ardura hain eskasak, alegia. Gaur ordea, gertu daukadan beste gai korapilatsu bat datorkit burura, Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen omen zaion entitate edo azpi-mundu horren ingurukoa.

Azken boladan, istiluak daude, berriz. Behin-betiko konpondu ez diren aspaldiko arazoei jarritako partxeek ez dute balio; eskapeak dauzka.

Jakingo duzuenez, urte dexente dela, Errektoretzak bertako irakasleak funtzionario bilakatzea behartu zituen. Hasieran, askok onartu ez zuten arren, lanpostuak mantentzearen beldurrak, atzera bota zituen gehienak. Sei bat irakasle ordea, ez dute etsi. Hauek, hiru bat urte daramatzate, egunero, Leioako kanpusean, benetako "Euskal Herriko" unibertsitate batean lan egiteko eskubidea aldarrikatzen.

Errektoretzak, ordea, ikasgaiak euskaraz eman ditzaketean irakaslearen falta izugarriari, batere garrantziazirik



eman gabe, uko egiten dio irakasle hauekin akordio zuzen bat egiteari. Bitartean, kaleratutako irakasleak ezin daitezke fakultatera sartu, eta Protecsa, "seguritate-mertzenario"-en jipoiak jasan behar izaten dituzte.

Ikasturte honen hasieran ere, bere postuetan lanean dauden irakasleenganako protestak egiten dituzte, guztiz baketsuak. Baina ez diete uzten, indar errepresiboak erabiliz; kanporuntz, gezurrez legitimatu nahian.

Lotsagarria eta erabat penagarria da, non eta unibertsitatean, arazoak honela estali nahi izatea, indarkeri eta mehatxuen bitartez. Arrazoi honengatik, antolatu egin dira zenbait ekintza eta manifa. Protecsarik ez, ezta beste polizia ere. Errektoretzak, erantzukizunak hartzen ez baditu, honek honela jarraituko du luzaroan, edo txarrago. Batzuk, egoera hau salatzeari uzten badiote ere; beste batzuk, gero eta amorrugeri gehiagoz erreakzionatuko dute; jadanik gertatu izan den bezala. Eta hau, beste kontextu batzuetan bezala, ez da harrizkoa.

IKER BARANDIARAN

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Mariá Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikere Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Raia mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria

•••••
Gerra-Eneakoei zuzenduta

Auzokideek aurkeztutako 18 salaketetatik 12k gale-retan 250.000 pezeta gainditu dituzte, egoera larria, adineko pertsonak atera beharra, 3,4,5 ordu kalean... Eta zuek eskatzen didazue hausnarke-ta bat egiteko? Nik ulertzen ditut horrelako ekintzak... mina... larritasuna... amorrua... presoen egoeragatik.

Ni andra zaharra, umiliatuta, bortxatua... izan naizelako...

Nire mingaina zatika moztu zidaten...

Nire sanak ebakiak izan ziren arnasa kenarazteko...

Nire seme-alabei titia ez emateko urratu zizkidaten bularrak...

Nire lepo ingurutik soka bat ipini zidaten. Eta gainera nire bularrean lantza bat sartu didate eta zuek Zapaltzaile-Handiarekin batera poliki poliki bultzatzen duzue nire bihotzean tinkatu nahian...

Gertaera hauen aurrean Zapaltzaile-Handiaren aurka nire zenbait seme-alaba tin-ko jarri ziren falta zitzaidan arnasa eman nahian, bere ama maitea naizela onartuz, ni defendatzen eta nire alde borrokatzen.

Zapaltzaile-Handi horrek, baru-barrutik kendu zizkidan nire seme-alabak... batzuk hil egin zituen kale erdian... beste batzuk torturatu (kasu batzuetan hil arte)... beste batzuk atzerrian daude... eta besteak gartzelatan... bizirik ehortzita... Ama Euskal Herria defendatzeagatik.

Kolore desberdineko jantxakurrez bete zizkidaten nire etxea... gorriak... berdeak... urdinak... gorbatarekin... Ez digute uzten gure etxe barruan askatasunez ibiltzen... kolpatuta, irainduta gaude... ke poteekin, gomazko pelotekin... derrigortzen gaituzte Tirano-Handia zerbitzeko.

Zertaz kezutzen ari zarete? ez zarete konturatzen zuek ez zinetela erasotuak? Ondorio bat besterik ez zen. Ekin-tza hori Zapaltzaile-Handiaren kontrakoa zen, une latza delako gure herriarentzat... mina, estutasuna... presoen egoeraren aurrean.

Zein izan da zuen sofrimendua, eguneroko gurearekin konparatuz? Ez kezkatu, zuen etxeak laster ondo apainduta egongo dira. Baina gu? Gure etxea...? Zelan geratzen da? Ni maitatzen nauten seme-alabekin bizi ahal izango naiz pakean noizbait? edo... Zapaltzaile-Handiarekin batera guztiz ittoko nauzue? Lantza hori nire bihotzeraino bultzatuko duzue hil arte?

Pentsatu nahi dut gutun hori idatzi zenutenean itsututa zeundetela keagatik. Pentsatu orain... Egoera larri... estu batean aurrean... jendearen erantzuna. Ni behintzat harro sentitzen naiz.

Ama bezala nitaz hain hurbil sentitzean eta beraien anai-arrebek presoak zelan defendatzen dituzten ikustean pozik sentitzen naiz.

Aurrera bolie!

R. ARENAZA

•••••
Bretaña-Euskal Herria elkartasuna

Bretaña, Estatu frantsese-ko ipar mendebaldean aurkitzen den zapaldutako nazio bat da, bere hizkuntza, kultura eta izaera propioarekin. Bretoiak, euskaldunak bezala, nazio izate sentimentu eta nahi bat dute, baina bretoiarekin zuzenki lotzen gaituena euskal errefuxiatuekiko eta euskal nazio askapenaren borrokarekiko adierazitako elkartasuna da.

Jean Groix, 92. urtean Fresnes-ko Estatu frantsese-ko espetxean bere buruaz beste egin zuen bretoia zen, bera euskal errefuxiatuei

laguntza eskaintzeagatik espetxeratu zuten, baina ezin izan zuen erregimen gogor eta ezgizakoi hura jasan, geroago Peio Mariñalena nafar preso mediku zerbitzu ezagatik hiltzen utzi zuten bertan.

Aste honetan, hilak 13, 39 bretoi, 3 frantziar eta hainbat euskal errefuxiatu epaitu dituzte Pariseko "Tribunal correccional" delakoan. Bretoi hauek euskal errefuxiatuak etxean izateagatik zigortu nahi dituzte, elkartasuna, maltzurkeria eta delitua dela sinestarazi nahian.

Ez gaituzte engainatuko, eta hemendik gure eskerrik onenak bidali nahi diegu, orain guri dagokigularik elkartasuna adieraztea.

Horregatik Amnistiaren aldeko Batzordeak azaroaren 1 lean Parisa martxa bat antolatu zuen.

Mila esker Bretaña Bretaña Euskal Herria Askatu.

ARRASATEKO AMNISTIA-REN ALDEKO BATZORDEA

•••••
Presoen alde

Zoritxarrez ez da lehenengo aldia euskal preso politikoan eskubideak errespetatzen ez direla.

Beraien zigorrei zigor gehigarri batzuk (dispertsioa, tratu txarrak, jipoiak, tortura psikologikoak...) eranstean zaizkie, bere legeak betetze-ko gai ez den "estatu demokrata" batengandik. Gose greba burutzen ari diren Arrasateko lau seme hauek, Jesus Mari Zabarte, Jon Agirre, Jose Gabriel Urizar eta Luis Mari Azkargorta, ez dute inongo luxurik eskatzen, legeak berak esaten duen errespetatzea baizik.

Hau salatzeke gose grebari ekin diote eta gu (Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak) nolabaiteko elkartasuna adierazteko Arrasate-

ko Amnistiaren aldeko Batzordearekin bat eginez, azaroaren 3an grebara irten ginen.

Presoen defentsan, erantzun beharrean gaude!!

Presoak borrokan, gu era bai!!

**ESKORIATZAKO IRAKASLE
 ESKOLAKO IKASLEAK**

•••••
Arrasateko ospitala eta hotza


Arrasateko ospitalean hotza ere, beste gauza askoren antzera aurrikusten da. Horren araberako ospitaleko arduradunek antolatzen dute hotzen egutegia, Arrasateko hotzen epealdiari hasiera eta amaiera emanaz, noiz piztu eta itzali ospitaleko berogailua, gaisoendako mantak noiz banatu eta kendu erabakitzen dutelarik.

Hotzak Arrasaten izango duen iraupena kalkulatzeko erabiltzen dituzten erizpideak ez dituzte ezagutzen. Ez dakit ospitaleko arduradunak, Igeldoko zentruko Usabiagaren, Arantzazuko "aita"ren edo Gorbeiaiko artzaiaren aurrikuspenak erabiltzen dituzten hotzaren epealdi hain laburra kalkulatzeko ala Maspalomaseko behategian Kanariaserako egiten dituztenak, baina ez dute asmatzen eta hotz egun asko izaten dira laburra den epealdi horretatik kanpo. Egundorietan berogailua ez piztea eta mantak ez banatzea izaten delarik egindako plangintzaren ondorioa.

Hotzaren epearen ez-asmate horrek ez litzuke izango dituen ondorioak, hain zuzen egun askotan ospitalean jasan behar dugun hotz handia, ospitaleko administrazioaren jarrera malgua izango balitz, berogailua eta mantak erabiliko balitu behar direnean eta ez orain arte gertatzen den gisara, antolatutako egutegiak markatzen dituen egunetan bakarrik.

J.M.A.

Beharrezkoa da autobus urbanoa Arrasaten?




**Aitor Arana
Langilea
(27 urte)**

Urbanoa jartzea ondo dago baina txarto iruditzen zaidana autobusen geltokiak gutxitzea da. Urbanoa behin behineko irtenbide bat baino ez da, eta ondo dagoen arren, beste geltokiak ez ziren kendu behar.



**Lupe Oteiza
Langilea
(49 urte)**

Bai behar da. Herria luzea da eta punta batetik bestera joateko urbanoa jartzea ondo dago eta batez ere jende nagusiarentzat. Nik ez dut autobusean ibiltzeko ohiturarik autoa dudalako baina ez dutenentzat beharrezkoa da.




**Jesus Mari Ojanguren
Langilea
(45 urte)**

Urbanoa ondo ikusten dut baina San Andres eta Zigarrolako geltokiak kentzea txarto, oso txarto. Beraz urbanoa jartzea beharrezkoa ikusten dut falta hori betetzeko.




**Antonio Arana
Jubilatua
(58 urte)**

Bai falta egiten du. Arrasaten mugimendu handia dago, herri zabala da, lantegi asko dago eta batetik bestera mugitzeko urbanoa jartzea begi onez ikusten dut.



**Amaia Urkiola
Etxekoandrea
(34 urte)**

Bai, batetik bestera mugitzeko beharrezkoa da. Hala ere oso txarto iruditzen zait beste bi geltokiak kentzea.



**Alberto Ubago
Langilea
(64 urte)**

Bai beharrezkoa ikusten dut. Jende asko bizi da Arrasaten eta distantziak luzeak dira. Pertsona nagusiak mugitzeko eta emakumeek erosketak egin ditzaten oso ondo etorriko litzateke.



**Tere Ibabe
Etxekoandrea
(61 urte)**

Bai premia badago. Jende asko bueltaka ibiltzen da eta punta batetik bestera joateko luzea egiten da herria. Urbanoa jartzen badute ni neu ere ibiliko naiz, merezi du eta.



**Carmen Rebollo
Etxekoandrea
(32 urte)**

Beti autoan ibiltzen naiz eta ez dut uste autobus urbanoa beharrezkoa denik. Autobusak ez ditut ezertarako erabiltzen.

egizabal

poltsak • oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

| | |
|---|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit..... | 79 53 00 |
| Igualatorria | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) | 79 39 00 |
| (emakumeak) | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua | 79 90 11 |

Gurutze Gorria

| | |
|---------------|----------|
| Bergara | 76 55 76 |
|---------------|----------|

DYA

| | |
|----------------|----------|
| Antzuola | 76 62 91 |
|----------------|----------|

Anbulatorioak

| | |
|--|----------------|
| Arrasate (Larrialdiak) | 79 13 57 |
| • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria | 77 03 45 |
| • Espezialitateak | 77 05 78 |
| | 77 12 63 |
| Oñati | 78 08 52 |
| Eskoriatza | 79 98 58 |
| Aretxabaleta | 79 74 58 |
| Aramaio | (945) 45 51 16 |

Anbulantziak

| | |
|------------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulantiak | 45 87 44 |
|------------------------------|----------|

Udaltzaingoa

| | |
|--------------------|----------|
| Oñati | 78 04 11 |
| Bergara | 76 14 69 |
| Arrasate | 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 79 10 52 |
| Eskoriatza | 088 |

Ertzaintza

| | |
|----------------|----------|
| Arrasate | 79 71 99 |
|----------------|----------|

Suhiltzaileak

| | |
|--------------------------------------|----------|
| Udal taldea | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea | 088 |

Matxurak

| | |
|----------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) | 79 09 00 |
| Elektrizitatea (iberduero) | 12 01 62 |
| Gasa | 900 40 05 23 |
| | 79 78 44 |
| | 79 76 78 |

Garraioak

| | |
|---------------|----------|
| Taxiak | 79 12 22 |
| P.E.S.A. | 79 14 19 |

Hirugarren adinekoendako zentruak

| | |
|---------------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza | 79 81 57 |

Kontsumitzailearendako informazioa

| | |
|--|----------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak | 79 87 77 |
| KIUB-OMIC | 79 51 55 |

Monterongo liburutegia

| | |
|----------------|----------|
| Monterron..... | 77 01 05 |
|----------------|----------|

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 17

Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Larunbata 18

Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Igandea 19

Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 20

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Asteartea 21

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 22

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Osteguna 23

Egunez eta gauez: Amezia. Santamania.

17 OSTIRALA

• ZINEA

“El favor” 7etan eta 10etan.

• KONTZERTUA ARRASATE MUSIKALEN

Arratsaldeko 6.30etan Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleek kontzertua eskainiko dute.

• PRESOEN ALDEKO EKINTZAK

Asanblada informatiboa arratsaldeko 7etan Seberon. Senideak-ek antolatuta.

18 LARUNBATA

• ZINEA

“ El jardin Magico de Stalin” 5etan. “Desperado” 7.30etan eta 10etan.

• PRESOEN ALDEKO EKINTZAK

Senideak-ek antolatuta arratsaldeko 7etan enkartelada Potoioan. Ondoren Asanbalda Udaletxean. Bi ekintza hauek eguneroko egingo dira. Bestalde, Diapositiba emanaldia arratsaldeko 8etan Plazan. Senideak-ek antolatuta.

• LAB SINDIKATUKO EKINTZAK

Sebero Altube plazan inguruko enpresa garrantzitsuen egoera azaltzeko argazki eta panelak jarriko ditu LAB sindikatuak egunean zehar.

19 IGANDEA

• ZINEA

“Eljardin magico de Stalin” 5etan. “Desperado” 7.30etan eta 10etan.

• CORAZON DE ENCINA ELKARTEAREN BIGARRREN URTEURRENA

Eguerdiko ordubatean Extremadurako ardoekin topa egitea. Arratsaldeko 5etan umeendako txokolatada lokalean. Corazon de Encina Elkarteak antolatuta.

• PRESOEN ALDEKO EKINTZAK

Eskualde mailako manifestazioa arratsaldeko 7etan. Senideak-ek antolatuta.

• KONTZERTUA AMAIAN

Amaia antzokian Letoniako Orkestra Nazionalaren kontzertua arratsaldeko 7.30etan Amaia Antzokian. Arrasate Musikalek antolatuta

MASAIK IKASTAROA

Azaroaren 24an hasita ostiralero goizeko 9.30etatik 11.30etara. Hasierako ikastaroa. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta.



ESKUALDEKO MANIFESTALDIA IGANDEAN

Igandean Arratsaldeko 7etatik aurrera gose-greban dauden euskal presoek elkartzuna adierazteko manifestaldia burutuko da herriko kaleetan zehar. Manifestaldirako deia eskualde osora zabaldu da.

EMAKUMEAK ARRASATEKO ELKARTEETAN

Arrasateko Kultura, Gazteria eta Emakumearen Udal sailak Emakumeen presentzia Arrasateko elkarteetan aztertzeko topaketak antolatu ditu, azaroaren 24 eta 25erako. Ostiralean arratsaldeko 7etatik 9etara eta zapatuan goizeko 10etatik 2etara. Topaketen dinamizazioa: Eskarne Larrinaga, emakumeen aukera berdintasunerako agentea. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 79 41 39 edo 79 09 00 zenbakietara.

20 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Desperado" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria lemapean kontzentrazioa arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Bartzordeak antolatuta.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA ESKORIATZAN**
Gaia: Gipuzkoa 1915-1945. Emalea: Kepa Gonzalez. Eskoriatzako kultur etxean arratsaldeko 7etan. Kultura sailak antolatuta

21 ASTEARTEA

- **ZINEA**
Ikuslearen eguna. "Desperado" 7etan eta 9.30etan.
- **IPUIN KONTALARIA HAUR LIBURUTEGIAN**
Pello Añorga ipuin kontalaria haur liburutegian goizeko 10etan eta 11.30etan. Udal liburutegiak antolatuta.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA ESKORIATZAN**
Gaia: Kuba. Emalea: Iñaki Agiriano. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Kultura sailak antolatuta.

23 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Salto al vacio" filmea. Zuzendaria: X. Kalparsoro. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.
- **UMOREZKO FILMEA MONTE RRONEN**
Umirezko filmea arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Urribarriko jubilatuek antolatuta.
- **EMAKUMEEN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: Lan eskubidea, eskubide zibilak eta eskubide penalak. Hizlariak: Cristina Arrieta eta Silvia Fernandez de Barrena. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan arratsaldeko 6etan. Gipuzkoako emakume abokatuen bartzordeak antolatuta.
- **LAB-ek ANTOLATUTA AUTO KARABANA**
Auto karabana eta arratsaldeko 6.30etan kontzentrazioa Zaldibarren.
- **KAFE-TERTULIA**
Kafe-tertulia Irati elkartearen arratsaldeko 7etan. Arrasateko Egizanek antolatuta.



HIRUGARREN ADINARI LAGUNTZEKO IKASTAROA

Azaroaren 23an hasiko da. 50 orduko ikastaroa. Klaseak astelehen eta ostegunetan emango dira goizeko 9.30etatik 11.30etara. Plaza mugatuak. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta.

BARDEETAN MENDI BIZIKLETZAK AEDKIN

AEDK Bardeetara bidaia antolatu du azaroaren 24, 25 eta 26rako. Bertan bizikletan ibiltzeko aukera egongo da. Izenemateko deitu 77 12 28 zenbakira.

AEROBIC FITNESS IKASTAROA

Azaroaren 25ean Musakolako kiroldegian. Orduetgia goizeko 10etatik arratsaldeko 6.45etara. Kirol hori praktikatu eta irakasten dutenentzat dago zuzenduta. Izen emateko epea azaroaren 20an bukatuko da. **Prezioa: Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideentzat 3.000 pta. eta gainontzekoentzat 4.500 pta. Deba Garaiko Kirol Zerbitzuak antolatuta.**



TXIRRINDULARITZA ZUZENDARI IKASTAROA

Azaroak 25, 26 eta abenduaren 2, 3, 16 eta 17an. Oñatiko Kultur Etxean. 18 urtetik gora eta eskola graduatua dutenei zuzenduta. **Prezioa 8.000 pta. Deba bailarakoentzat eta 10.000 pta. gainontzekoentzat. Izenemateko epea azaroaren 20an bukatuko da. Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak antolatuta**

ERAKUSKETA MONTE RRONEN

Azaroaren 27tik abenduaren 3a arte erakusketa Monterronen. Gaia: Bizkaiko Golkoko itsasbazterra. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Udalak antolatuta.

ESKAPARATEAK APAINTZEKO IKASTAROA

Azaroaren 6tik 17ra astelehenetik ostiralera. 10 egun eta 20 orduko iraupena. Orduetgia: arratsaldeko 2etatik 4ak arte Zaldibar ikastetxean. Irakaslea: Jabier Amuriza. **Prezioa: Ibai-Arteko bazkideak 5.000 pta. eta bazkide ez direnek 7.000 pta. Talde mugatuak. Interesatuok dei egin 79 30 90 (Rakel) eta 79 87 95 (Mabel) zenbakietara. Ibai-Arte elkarteak antolatuta.**

“Gaztetxe bat eta auzoetan bi gazte txoko ditugu. Gaztetxea behin behineko toki batean dago eta toki berri batera eramateko proiektua hor dago. Orduan, ikusi beharko da gaztelekua beharrezkoa den, edo beste planteamendu batekin egin daitekeen... Baina Arrasaten baino beste leku batzuetan bizi da behar hori kalean”.

Blanka Jauregi, Gazteria saileko arduraduna, azaroak 9.

Egunkaria

“65 urterekin, era batera edo bestera, erreleboa erabat zuzena da, exekutiboen eginbeharrak, nahiz eta harreman, eztabaida, negoziazio, eta karrotik tiratzeko mahai askotan nabari ez, nekagarriak izaten dira. Azkenean, nahi eta nahi ez desgastea iristen da (...).

Uste dut exekutiboek gehienbat epe motzera izaten dituzten lorpen eta helburuak hartzen zaizkiela kontuan, eta horri ezer kendu barik, zuzendariak aurrera begira oinarritzko garrantzia duen lana egiten dute.

Gaur egungo Korporazio eremuan, epe motz eta luzeko gestioen arteko oreka lor daiteke gure enpresa taldeak mundu mailako merkatuan benetako alternatibak izan ditzan (...).

Barne-komunikazioan hobetu beharra daukagu. Zentzu horretan, esan nahi dut zuzendariak, beraien negoziotetan eguneroko errealitatea ikusten dutenez, sutsuago hartu behar dutela parte”.

Javier Mongelos, urria.



Zer akordiotara heldu zarete AEK eta Jaurlaritza?

AEKren eta Jaurlaritzaren Kultura Sailaren artean adostu dugun akordioa oraindik sinatu barik dago, baina laster sinatzea espero dugu. Urriaren 28an egin genuen Batzar Nazionalak baiezkota eman zion Kultur Sailarekin hitzartutako testuari, eta orain Jaurlaritzaren baiezkota falta da.



Aitziber Zufiria
Erdu-AEKko irakaslea

Akordio horretatik bereziki hiru puntu nabarmenduko nituzke. Dirulaguntzei dagokienez, kopurua handitzeko konprometua hartu du Jaurlaritzak. Igoe-

ra hori zatika egingo da baina lau urte barru ikasle eta orduko 275 pezeta jasoko ditugu. Euskaltegien alorrean, berriz, AEKren barruan egon arren euskaltegi bakoitzak bere nortasun juridikoa izango du. Bukatzeko irakasle goaren inguruko puntu bat adostu da, eta hori izan da AEKren barruan eztabaida gehien ekarri duena. Irakasle berri guztiek Unibertsitateko titulua izan dezatela eskatu du Jaurlaritzak eta Deba Garaiko AEK hor ez dator bat. Akordioarekin ados egon arren, puntu horretan ezezko botoa eman genuen. Gehiengoak onartu egin zuen neurri hori eta akordioa sinatu arren, puntu hori aldatzekotan geratu gara.

Gure ustez akordioa lortzea garrantzitsua da baina hasierako urrats bat baino ez da. Oraindik gauza asko geratzen dira aldatzeko eta etorkizunean horiek konpontzen ahalegindu beharko gara. Juridikoki ezer ez dagoenez eta akordioa politikoa denez, gainera hitzartutakoa borondateen baitan egongo da.



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1. etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Paskinen agerpena salatzeko idatziak

Udaleko bozeramaileen batzordeak, HBk salbu, Jose Mari Loitiren aurkako paskinen agerpena salatu zuen ostiralean. PSE-EE, EAJ, EA, EB eta PPko bozeramaileek idatzi bat sinatu zuten, korporazioko edozein partaideren aurka egindako mehatxuak tinkotasun osoz kondenatu behar direla azaldu eta Loitiri elkartasuna adierazteko. Gainera, gaia hurrengo udal plenoan berriz aztertu-ko dela jakinarazi zuten.

HBk beste idatzi bat kaleratu zuen, Euskal Herriak bizi duen tentsio politikoaren arrazoiak aztertu barik idatzi hori ezin zutela sinatu adierazteko. Paskinen egilea zein izan den argi ez dagoela ere esan zuten.

Zapatuan, berriz, EAJko juntak idatzi bat plazaratu zuen ekintza "faszista" gaitzesteko eta PSE-EEK ere berdina egin zuen astelehenean. Bi alderdi horiek euren idatzian azaldu zuten, horrelako ekintzek gogo gehiagorekin lan egitera animatzen dituzte.



ONCEren batzarra eta jaialdia

ONCEko bostehun afiliatu inguru batu ziren zapatuan Musakolako kiroldegian. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako kideek, ONCE erakundeak administrazioarekin dituen harremanen berri izan zuten goiz partean. ONCEko arduradunek esan zutenenez, autonomia gehiago eskatu nahi diote gobernuari eta horrela, langileen lan orduak murriztu. Eguerdian bazkaria egin zuten eta arratsaldean dantzaldia izan zen.

UNEDeren aldeko manifestaldia

UNEDeko Euskara Departamentuaren aldeko manifestaldia egin zen Bergaran zapatuan. Mila lagun inguru bildu ziren manifestaldian, itxiera salatu eta ohiko ikastaroak normaltasunez burutu daitezela eskatzeko. Era berean, egoera konpontzeko

elkarrizketak hastea eskatu zioten UNEDeko patronatuari.

Pedrotxori omenaldia

Orain dela hamabost urte gartzelaratu zuten Pedro Gudiri "Pedrotxori" omenaldia egin zioten domekan. Ehundaka lagun bildu ziren Herriko Plazan

herriko presoak gogoan izateko. Hasieran lore eskaintza egin zitzaizkien preso eta deportatu senideei, eta gero "Pedrotxo"ren gurasoen aurrean aureskua dantzatu zuten dantzariak. Bukaeran manifestaldia egin zen. Pedro Gudirik zigorraren 3/4ak bete duenez, legearen arabera kalean egon beharko litzateke baldintzapeko askatasunean.

JAIOTZAK

- Damaris Riongos Arrotxa. Urriaren 27an.
- Jabier Mendieta Goioatxe. Azaroaren 5ean.
- Eider Cecilia Batxiler Bautista. 7an.
- Naia Vizcaino Urrutia. 8an.

EZKONTZAK

- Juan Angel Lezeta Ibabe eta Maria Elena Iturbe Arana. Urriaren 21ean. Elizaz.
- Pablo Rodriguez Sancho eta Maria Encarnación Fuentes Rodriguez. Azaroaren 4an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Joakin Unanue Etxaide. Urriaren 31n. 77 urte.
- Juan Murua Egaña. Azaroaren 7an. 67 urte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



* Joxe Felix Dz. de Tuesta

Galesen ikasbideen bila

Gales, urriaren 27 eta 28a. Europako hizkuntza gutxituen prentsari buruzko jardunaldiak. Europako Batasuneko (EB) hizkuntza gutxituen ordezkariak bildu ziren Galesko Abertawe hirian hizkuntza horietan egiten den prentsa ezagutzeko asmoz. Guztira Europa osoko hirurogeita hamar bat partaide, Euskal Herriatik bi ordezkari joan ginen: Martxelo Otamendi, Euskaldunon Egunkariaren berri eman zuena, eta ni neu, euskarazko herri-prentsaren ordezkari gisa. EBren Merkator erakundeak eta Galesko Hizkuntza-Akademiak antolatuta zizuzten jardunaldiak.

Gaur egun EB osatzen duten 15 estatuetan hogeitamar hizkuntza inguru dira gutxituta daudenak. Badira beste batzuk, estatu bateko hizkuntza ofizialak izanik ere, beste estatu batean gutxituta

daudenak: albaniera Italian edo Suediera Finlandian, adibidez. Bitxia da, benetan, daniera Alemanian gutxituta egotea eta alemaniera Danimarkan. Guztietan penagarrina irlandararen kasua da: beren estatuko hizkuntza ofiziala izanik irlandarrek ez baitute jakin irlandarari eusten, gaur egun guztiz desagertzeko zorian dagoelarik.

Euskaldunontzat guztiz arrotzak diren errealitateak ezagutzeko aukera izan genuen. Batzuk urruti samarrekoak: Italiako friulia eta Holandako frisia edo Galesbera. Beste batzuk, berriz,

.....
*“Euskadunok,
 berriz, ia ez dakigu
 Gales non
 dagoen ere”*

gertu-gertu ditugunak, Galiza kasu. Guk haien berri ez izanik, haiek ere Euskal Herria ez zutela ezagutzen uste genuen. Baina oker geunden. Euskararen egoera soziolinguistikoa oso ezaguna da Europako hizkuntza gutxituen adituentzat. Harrigarriena da galestarrek zein ondo ezagutzen dituzten euskararen eta euskal kulturaren gorabehera guztiak. Euskaldunok, berriz, ia ez dakigu Gales non dagoen ere; are gutxiago galesa eta euskara direla egoera soziolinguistikorik antzekoena duten hizkuntzak.

Aspaldiko bi urteotan Galesko hiru talde etorri dira Arrasatera euskararen erabilera sustatzeko gure herrian egin diren saioak ezagutzeko asmoz. Arrasatek, berriz, sekula ez zaigu bururatu Galesera joatea ez eta hango berri jakitea ere. Bada, ordea, zer ikasi. Beren hizkuntzarekiko duten atxekimendua omen da galestarren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Ingelesak, munduko hizkuntza indartsuenak, Britainia Handiko hizkuntza guztiak eta irlandera hilzorira eraman ditu. Galesak, aitzitik, oraindik bizirik dirau eta aspaldi honetan suspertzen hasita dago. Eta hori inongo autonomia politikorik ez ekonomikorik izan gabe.

Euskaren erabilera sustatzen erreferentzia omen da Arrasate. Arrasatek, ordea, ez du erreferentziarik bere zilborra baino. Ba ote da Galesen euskaltzaleontzat ikasbiderik?

* UDALEKO EUSKARA
TEKNIKARIA

USTEAK USTE

ZAZPI ZATITAN

Gaur ez dut batere gogorik idazteko. Zertarako? Merezki al du gaur egunero ikusten ari garen gauzei buruz hitzegitea? Baina, zerbait esan beharrean aurkitzen naiz...

Indarkeri denak baztertu beharko genituzke. Geurea eta besteena. Hangoa eta hemengoa. Badaude beste bide batzuk gure eskubideak defendatzeko edota gure protestak azaltzeko.

Ez. Azken aste hauetan Arrasaten bizi izandakoek ez digute itxaropenik ematen. Presoen egoerak ere ez. Zergatik eta zertarako indarkeria? Hausnarketa sakon baten beharrean gaude... Ikusitakoei buruzko hausnarketa eta bere zergatiei buruzkoa...

Txarrena da errua besteena dela pentsatzen dugula beti. Beste alderdiek, beste taldeek... Baina indarkeria erabiltze eta jarraitzearen errua gure baitan dago, gure harrotasunean... Beste entzuteko edota gure egia zalanztan jartzeko falta zaigun borondatea da indarkeri guztien erruduna.

Aizu! Zuretzat hitzegiten ari naiz! Berdin zait zein aldean zauden, errudun denok baikara.

Hau al da etorkizuna eraikitzeke aukeratu dugun bidea? Horrela bada, laster “zazpiak bat” ikusi ordez zazpi zatitan apurtuta ikusiko dugu gure Herria.

JOSE RAMON ELORTZA

● **Txitxinpe** ●
 Bereztasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak


Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Abendutik martxora arte ikastaroa jasoko dute aukeratzen diren proiektuen arduradunek.

Bederatzi proiektu aurkeztu dira autoenplegu programan

Hamalau lagunek azaldu dute Udalaren autoenplegu programan parte hartzeko nahia. Ideiak bakarka edo taldean aurkezteko modua zegoenez, guztira bederatzi enpresa proiektu garatzeko asmoa azaldu da. Proposamenak eginda, autoenplegurako programak eskainiko duen ikastaroa nork eman erabakiko du Udalak astelehenean. Adjudikazioa eginda, bederatzi proiektuetatik zeintzuk onartu erabakiko du ikastaroa emango duen enpresak. Udalak zortzi inguru onartzeko asmoa aurrikusi zuen, baina aurrez aurkeztutakoak egokiak diren edo ez aztertuko da.

Orain arte indarrean egon den arrisku soldatak laguntza ekonomikoa ematen zuela eta, lehiaketa horretara aurkeztu ziren programak landuta egotea eskatzen zen. Udaleko programarako egin diren proposamenak, berriz, garatu barik daude oraindik. Abendutik martxora arte, ikastaro bat jasoko dute

aukeratzen diren enpresa ideien partaideek. Ikastaroan proiektua sakonduko dute eta tutoritza orduak ere egongo direnez, ideia bakoitzak egokitzu joango da. Udalak bere aldetik, dokumentazio eta bidaia gastuei aurre egiteko dirulaguntza emango du. Lanaren txostena aurkezterakoan, proiektu bakoitzeko 120.000 pta. emango du Udalak.

Marga Garmendia, enplegurako teknikariaren berbetan, "gehienbat jende gaztea, 25 eta 35 urte bitartekoa hurbildu da asmoen berri ematera". Teknikariaren ustez, "ideia bat izatea erraza ez dela kontuan izanda, aurkeztutako kopurua ona dela esan daiteke". Gehienbat publizitate, multimedia, arte grafiko eta hostalaritzaren inguruko proiektuak dira.

Iaz bi proiektu landu ziren arrisku soldata programaren barruan. Oraindik enpresa moduan gauzatuta ez badaude ere, datoren urterako eratuta egotea espero da.

Euren etxeetara bueltatu

Ferrerias zortzi bis-eko bizilagun gehienak euren etxeetara bueltatu dira aste honetan. Argentariaren aurkako sabotai ekintzaren ondorioz, etxean ur eta berogailu barik geratu ziren baina saneamendua konponduta, berriz ere euren etxeetara itzuli dira. Etxean kalte handiak izan zituztela eta, lehen solairuko ezker aldean bizi ziren bizilagunek oraindik ezin izan dute euren etxera bizi izatera joan.

SOS Arrazakeriaren eskaria onartu

Arrasateko Udalak 638.000 pta. emango dio SOS Arrazakeriari, Ceutan dauden errefuxiatu batzuk Donostiara ekar ditzan. SOS Arrazakeriak eta Emauseko trapeoek, bost errefuxiatu ekarriko dituzte Donostiako harrera etxera. Udalak, errefuxiatu baten gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea onartu du.

SOS Arrazakeriak esku-titz bat bidali zion Udalari dirulaguntza emateko eskaria eginez, eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunek begi onez ikusi dute proposamena.

Errefuxiatuak jasotzeko programaren helburuak: etorkinen bizitza hobetzea, oinarriko beharrak betetzea eta heziketa maila bat ematea izango da.

"EDERTU"

ileapaindegia eta solarium-a



San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Gose greba mugagabeen jarraitzen dute Arrasateko hiru presok

Asteazkenean hilabete bete zuen gose greban Jon Agirrek, Tenerife II-n dagoen preso arrasatearrak. Espetxe berean dagoen Gabriel Urizar "Gautxorik" ere urriaren 15ean hasi zuen baraualdia baina odola botatzen hasi zela eta, bertan behera utzi behar izan du. Orain sueroz az gartzelako enfermerian ingesatua dago. Jose Mari Zabartek, Salto Del Negron dagoen presoak eta Sevilla-koan dagoen Luis Mari Azkargortak, berriz, urriaren 1ean hasi zuten txandakako gose greba. Bi presoek aste batean bai, eta bestean ez, egiten dute barau.

Maria Murgoi tiok, "Gautxori" ren amak joan den asteartean azaldu zuenez, "pre-



Sei arrasatear gose greban daude Udaletzeko pleno aretoan.

so gehienek hogeiki kilo inguru galdu dituzte eta batzuen osasun egoera txarra da". Lau presoak, gainera, aurrez ere makina bat gose greba egingdakoak dira. Espetxeetan bizi baldintza minimoak bete daitezela eskatzeko egiten ari

dira mugagabeko gose greba. Moduluetan bakarrik ez egotea, patio ordu gehiago izatea eta epaileen aginduak betetzea eskatzen dute besteak beste.

Preso horiei elkartasuna adierazteko, domekatik Arrasateko sei lagun baraualdia

egiten ari dira udaletzeko pleno aretoan. Lagun horien esanetan, "Tenerife II-n dauden presoek gose grebak irauten duen bitartean, geu ere ezer jan barik egongo gara". Aurreko udal plenoan, Senideak-en mozioaren puntu bat onartu zela eta, herriko alderdi politikoei horren inguruan zerbait egitea eskatu diete gose greba egiten ari direnek. "Euren alderdian presoak Euskal Herrira ekartzeko eskiera egin dezatela, eta erakundeek hori eskatzeko idatziak bidal ditzatela eskatu nahi genieke". Presoek elkartasuna adierazteko, gainera, bihar diapositiba emanaldia izango da Seberon, eta domekan eskualde mailako manifestazioa egingo da.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Hainbat gaietan adostasunera iristeko lanean ari dira EB eta HB.

EB eta HB, lau urtetarako plangintza finkatuz

Udaleko gobernu kideek, Herri Batasunak eta Ezker Batuak, bilera izan zuten asteazkenean legealdi honetan garatuko dituzten gaiak zehaztuz joateko. Aurrez ere bilerak egin izan dituzte, baina aste honetan sailez sail puntu konkretu batzuk adostu dituzte.

Gaiak garatu barik badaude ere, ingurugiro arloan eta garapen ekonomikoan pausak ematekotan geratu dira bi alderdiak. Ingurugiro alorrean lana egin behar dela eta, batzordea edo zinegotzi baten delegazioa sortzea interesgarria ikusten dute. Ezer erabaki baino lehen, hala ere, zein konpetentzia izango lituzketean aztertzea erabaki dute.

Enplegu eta garapen arloan, patronatu publikoa sortzea aurrikusi dute. SPRIk, sindikatuek, Udalak eta enpresariak izango lukete ordezkariak sail horretan.

Horrez gain, autobus urbanoa jartzeko aukera aztertzea, eta gai batzuetan herritarrei iritzia eskatzeko erreferendum-ak egiteko akordiora ere iritsi dira. Autobusa zelan finantzatu eta antolatu aztertu beharko da.

Abenduaren lehen hamabostaldian beste batzar bat egingo dute HB eta EBak. Asmo horiek jasoz plangintza finkatu eta gero, beste alderdiei aurkeztuko zaizkie. Abenduan aurrekontuak eztabaidatzen hasiko dira.

ISO 9001 zertifikatua lortu

AENORek (Normalizazio Erakunde Espainiarra) ematen duen ISO 9001 kalitate zertifikatua lortu du Arrasateko Eskola Politeknikoak. Gaur, ostiralean, egin behar zen ekitaldian AENOReko arduradunek agiri hori eman behar zioten Eskola Politeknikoari. Iraunkor programatik eman diote zertifikatua.

Autobus geltokiak eskatu

Geltokien inguruan dagoen gabezia konpontzeko, autobusak Zigarrolako eta San Andreseko geltokietan geratzea eskatu dio Udalak Diputazioari. Autobusak erdialdean eta bi auzo horietan geratzea onartuko ez balitz, gutxienez bi tokitan geratzea eskatu du Udalak. Hori onartuz gero, hiriburuetara joan edo hiriburuetatik datozen autobusen geltokiak Zigarrolan eta erdialdean egongo lirakeke.

San Andresen bizi direnei erdialderainoko bidea mozteko, erdialdeko geltokia Abaroa ingurura aldatuko litzateke.

ARGI IBILI... ETA ERAMAN EZAZU

HILABETEETARAKO UKIPENEZKO LENTEAK EROSTEAN ERAMAN OPARI GISA JAKA HAU ETA LEHENENGO PAREA



Orain, MultiOpticasen, Zerbitzu Optikoetan lehena, 6 hilabeterako Ukipenezko Lenteak eta horiek zaindu eta gordetzeko likidoak erosteagatik, lehen pareta eta jaka olinpiko berezia oparitzen dizkizugu.



MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

BEZEROAREN ARRETA ETA ZERBITZURAKO TELEFONOA
900 - 34 35 36

Promozio honek izakinak bukatu arte iraungo du.



Norbegiatik etorritako Sami talde bat izan zen Arrasaten asteartean. Laponia izenez ezagutzen den herrialdetik etorri dira Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta, Euskal herriko hizkuntza eta hezkuntzaren egoera ezagutzeko. Laponiar bezala ezagunak izan arren, beraiek ez dute gogoko hitz hori. Norbegiak inposatutakoa dela diote. Arrasaten izan diren bederatzi lagunak Sami Land edo Sami herrialdeko hiritarrak direla esan digute.



Opel Vectra berriaren aurkezpena egin zen Bergarako Talleres Olan ostiralean. Aurkezpen egunean jende asko inguratu zen Vectra berria gertutik

ikustera. Autoa ikusi eta luntx gozo bat dastatzeko aukera izan zuten inguratutakoek. Argazkian auto berria eta Ola zein Takoloko langile guztiak ageri dira.



San Frantzisko Xabier ikastolako 7. mailako ikasle talde bat Aubixako barnetegira joan zen astebete igarotzera. Barnetegian ezin hobeto ibili ziren Arrasateko neska-mutilak eta gainera jakin izan dugunez Euskaraz blai etorri dira.



Bisita ugari izan da gurean aste honetan. Ostiralean Oñatiko barnetegiko irakasleak etorri ziren ARRASATE PRESS eta ATB ikustera. Astelehenean berriz, Aramaixoko San Martin herri eskolako hainbat neska mutil. Hauek bai primeran pasa zutela telebistan gainera abesti bat ere eskeini ziguten.



Goikobaluko bost partaide Tenerifen izan dira astebetez. Donostiako Orfeoarekin joan dira eta bost emanaldi eskeini dituzte bertan. Kontzertuek izugarrizko arrakasta izan dute, sarrerak agortzeraino denetan. Tenerifen disko bat grabatu dute eta entsaiuak benetan gogorak izan direla aitortu digute. Ignazio Olaizola, Jabi Aritzabaleta, Iñaki eta Nestor Maidagan eta Anuska Ezkurra dira argazkikoak.

IZEN PROPIOAK

● **Javier Mongelos**
MCCko lehendakari ohia Tenea taldeko Auditoria Kontrolen batzorde berriko partaidea izango da. Enrique Martinez Robles, Perez Pita eta Jabier Mongelos izango dira batzorde horretako kideak. Hiru eginbehar zehatz izango dituzte: auditoren izendapena edo ordezkapena erabaki, urtero auditorien jarraipena egin eta burtsako informazioa berrikusi.



Patxi Garai eta **Rosa Martin** irailaren 16an ezkondu ziren Udalan eta lagun

eta senitartekoekin batera ospatu zuten eguna. **Roberto Zubillaga** eta **M^o**



Carmen Murillo urriaren 14an San Isidro elizan. Zorionak lauroi!

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**TXOKO
TABERNA**
Eure berezitasunak pintxo eta
mckatu gozoak

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Bakerako borondateen kontratua

Kontratu honen bidez, Euskal Herrian bakea lortzeko borondate demokratikoen ondorengo adierazpena sinatzen dut. Honela, neure borondatea Herri honetako beste askorenarekin elkartzen dut; guztiok ere justizia eta bakea nahi ditugu, baita aktiboki eta positiboki helburu horiek lortzen lagundu ere.

Beraz, neure egin eta sinatzen dut:

- 1** Geure gizartean ditugun arazoentzako konponbide demokratikoak bultzatzeko borondatea. Ondorioz:

- 2** Bortxakeria guztiak bukarazteko borondatea.

- 3** Elkarrizketa bidezko konponbideak bultzatzeko borondatea, baita elkar ulertzeko eta distentsiorako esparru sozial eta politikoak sortu eta finkatzeko ere.

- 4** Edozein helburu politiko bide demokratikoetatik defendatu eta lortu ahal izateko, bide juridiko eta politikoak irekitzeko borondatea.

- 5** Euskal Herriaren geroa erabakitzerakoan, gehiengoaren nahia onartzeko borondatea.

- 6** Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte eta Iparraldearen artean erakunde, gizarte, ekonomi eta politika mailako harremanetan adostasun handiagoko bideak bilatzeko borondatea, baita eskualde horietako bakoitzeko herritarren erabakia errespetatzeko ere.

- 7** Giza eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan sakontzeko borondatea.

- 8** Gatazkaren ondorio mengarrienak biguntzen eta gozaten hasteko borondatea.

Hona hemen, Arrasaten, kontratu hau sinatu dutenen zerrenda:

Agiriano Losada, M^a Lourdes
 Agirreurreta, Joxe Ramon
 Altube Bolinaga, Lorentxo
 Altuna Gallastegi, Jose Antonio
 Alzua Ruiz, Justo
 Arana Ibabe, Mikel
 Aranburu Agirre, Iñaki
 Aranzabal Balzategi, Víctor
 Andres Argieta, Jose Luis
 Armendia Zabala, Jose Luis
 Arriaran Aranburu, M^a Teresa
 Astigarraga Gorrotxategi, Jone
 Balanzategi Altuna, JulianBarrutia

Arregi, Iñaki
 Bengoa Leibar, Javier
 Berrizbeitia Garro, Fernando
 Corcuera Miranda, Jose Manuel
 Elorza Gorosabel, Jose Ramon
 Etxebarria Iztueta, Joxe
 Garai Bengoa, Juan Ramon
 Garcia Nuñez, M^a Luisa
 Garmendia Elorza, Jesus Maria
 Goikolea Zabala, Patxi
 Landa Bidaburu, Arrate
 Larrañaga Bolinaga, Jose Maria
 Larrea Mendizabal, Dani
 Letona Biteri, Xabier

Lezamiz Bilbao, Mikel
 Irizar Intxausti, Mikel
 Jauregi Cambra, Blanca
 Mendiguren Bereziartu, Iñaki
 Mendizabal Etxabe, Jose Antonio
 Mujika Arrieta, Joxe Mari
 Ormaetxea Uribetxeberria, Felix
 Oyanguren, Rufino
 Pagaldai Uribe, Xabier
 Retegi Albisua, Javier
 Rodriguez Bengoa, Luis Angel (Koldo)
 Ruiz de Azua Galdos, Pedro Mari
 Uriarte Muruaga, Juan Jose

Kontratua sinatzeaz gainera, 18 emendakin egin dituzte 40 sinatzaileen artean.

Zuk ere, irakurle, ados bazaude sina dezakezu kontratu hau. Elkarrizketa eta akordioaren garapenerako bat etortze esparrua handitzeko.

Orain urtebete edo bi beharrezkoa zen elkarrizketa bakerako tresna bezala aldarrikatzea. Gaur ez da nahikoa. Beharrezkoa da, hortaz gainera, elkarrizketa erabiltzea, teoriatik praktikara pasatzea hain zuzen..

Bakerako Borondateen Kontratuko 8 puntuak onartzen ditudala adieraziz sinatzen dut,

Sinadura

Izen-deiturak Helbidea

NAN Lanbidea

Oharra:

Puntu hauetakoren bati zerbait erantsi edo zuzenketaren bat egin nahi izanez gero, idatzi beste orri batean eta, sinatutako orriarekin batera bidali helbide hauetako batera postaz, nahiz eskuz.

Jose Ramón Elorza.

Jose L. Iñarra Pasealekua. 11

Mattin Amundarain. Loramendi, 2-2. C.

Edo nahiago baduzu sinatzaileetako edozeini eman diezaiokezu.

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Seigarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Juan Carlos Gonzalez eta Andoni Altube.*
- *Taldeen aurkezpena: Koka Juniors, Gualtrapas, Potrosorri eta Hirei.*

Zaldibar txapelketa apurka - apurka aurrera doa eta taldeen artean gero eta desberdintasun handiagoa nabaritzen da. Aste honetako ihardunaldian, dena dela, berdinketak izan dira nagusi, bost guztira eta gol barik bukatu den neurketarik ere egon da; Trikiti eta Elisabeth-en artekoa hain zuzen ere.

Bestelakoan ez da arazorik izan eta normaltasuna izan da nagusi.

Jokalariei gogoratu behar zaie datorren astelehenean azaroak 20an bilera izango dutela Monterronen arratsaldeko 7etan. Bertan besteak beste, epaileen arazoa, egutegiaren berri eta bigarren faseko gorabeherak aztertuko dira.



ANBOTOSTE TABERNA

- EGUNEKO MENUA
- PLATER KONBINATUAK

**ASTEBURUTAN
GOIZEKO 6ETATIK ZABALIK!**

LARREA PLAZA, 2 BEHEA
TFNOA: 79 68 30 ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Sailkapenak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Orlando Piratas | 6 | 6 | 0 | 0 | 44 | 6 | 12 |
| Sokoakoak | 6 | 4 | 2 | 0 | 38 | 19 | 10 |
| Arrasate kirolak | 6 | 4 | 2 | 0 | 21 | 12 | 10 |
| Kamasutra | 6 | 4 | 1 | 1 | 26 | 10 | 9 |
| Sortu Informatika | 6 | 4 | 1 | 1 | 43 | 22 | 9 |
| Frantziskanner | 6 | 4 | 1 | 1 | 28 | 15 | 9 |
| Totem | 6 | 3 | 2 | 1 | 26 | 19 | 8 |
| D. A Iriztu | 6 | 4 | 0 | 2 | 34 | 17 | 8 |
| Jotakabau | 6 | 2 | 3 | 1 | 18 | 20 | 7 |
| Uglys Txinato | 6 | 2 | 2 | 2 | 20 | 24 | 6 |
| Argi ibili | 6 | 2 | 1 | 3 | 26 | 27 | 5 |
| Kakajauri | 6 | 2 | 0 | 4 | 20 | 22 | 4 |
| Gualtrapas | 6 | 2 | 0 | 4 | 21 | 28 | 4 |
| Bukanak | 6 | 1 | 0 | 5 | 16 | 27 | 2 |
| Alealee | 6 | 1 | 0 | 5 | 13 | 41 | 2 |
| Toss Tehaman | 6 | 1 | 0 | 5 | 11 | 42 | 2 |
| Gazttxokoa | 6 | 0 | 0 | 0 | 23 | 60 | 0 |
| Tronkoteak | 6 | 0 | 1 | 5 | 2 | 11 | 1 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Fosforos | 6 | 5 | 1 | 0 | 32 | 18 | 11 |
| Okoretegi Taberna | 6 | 4 | 2 | 0 | 20 | 6 | 10 |
| Adelaida Haizea | 6 | 5 | 0 | 1 | 43 | 14 | 10 |
| Txeyenex | 6 | 5 | 0 | 1 | 25 | 10 | 10 |
| Ac Surcos | 6 | 4 | 1 | 1 | 21 | 16 | 9 |
| Hirei | 6 | 4 | 0 | 2 | 20 | 12 | 8 |
| Lorategi | 6 | 4 | 0 | 2 | 16 | 11 | 8 |
| DKB | 6 | 4 | 0 | 2 | 23 | 20 | 8 |
| Ojo Avisore | 6 | 2 | 1 | 3 | 21 | 21 | 5 |
| Los heredia | 6 | 2 | 1 | 3 | 12 | 13 | 5 |
| Fraguel Gol | 6 | 2 | 1 | 3 | 13 | 17 | 5 |
| Aizpun Bila | 6 | 2 | 1 | 3 | 9 | 17 | 5 |
| Berango Sukaldeak | 6 | 2 | 0 | 4 | 17 | 19 | 4 |
| Altza Porru | 6 | 2 | 0 | 4 | 18 | 21 | 4 |
| 6º Proiektua | 6 | 2 | 0 | 4 | 16 | 24 | 4 |
| Kopyprest | 6 | 1 | 0 | 5 | 15 | 42 | 2 |
| Los Dalton | 6 | 0 | 0 | 6 | 14 | 36 | 0 |
| Kirten Tropel | 6 | 0 | 0 | 6 | 4 | 25 | 0 |

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|--------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Anbotoste | 6 | 5 | 0 | 1 | 26 | 9 | 10 |
| Ati que te importa | 6 | 5 | 0 | 1 | 21 | 16 | 10 |
| Irati STS | 6 | 5 | 0 | 1 | 21 | 15 | 10 |
| Betrayer | 6 | 4 | 1 | 1 | 29 | 20 | 9 |
| Trikiti | 6 | 3 | 2 | 1 | 21 | 10 | 8 |
| Borroco Roll | 6 | 4 | 0 | 2 | 22 | 16 | 8 |
| Nuevo Taberna | 6 | 2 | 3 | 1 | 29 | 15 | 7 |
| Lautherbrunner | 6 | 3 | 1 | 2 | 36 | 21 | 7 |
| Ganbelas | 6 | 3 | 1 | 2 | 16 | 16 | 7 |
| Insert Coin | 6 | 3 | 0 | 3 | 25 | 19 | 6 |
| No Comment | 6 | 3 | 0 | 3 | 19 | 16 | 6 |
| Los Dimy | 6 | 2 | 2 | 2 | 17 | 18 | 6 |
| Potrosorri | 6 | 2 | 0 | 4 | 12 | 16 | 4 |
| Arrasate Zoo | 6 | 1 | 1 | 4 | 8 | 17 | 3 |
| Elisabeth | 6 | 1 | 1 | 4 | 9 | 22 | 3 |
| Txarokis | 6 | 1 | 0 | 5 | 20 | 25 | 2 |
| Cons Fercon | 6 | 1 | 0 | 5 | 20 | 46 | 2 |
| HMKL | 6 | 0 | 0 | 6 | 13 | 47 | 0 |

| E taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Aurrera Bolie | 6 | 6 | 0 | 0 | 23 | 6 | 12 |
| Cerv Leintz | 6 | 6 | 0 | 0 | 28 | 11 | 12 |
| Pub People | 6 | 5 | 0 | 1 | 41 | 15 | 10 |
| Danok Lagun | 6 | 3 | 2 | 1 | 25 | 17 | 8 |
| Koka Juniors | 6 | 4 | 0 | 2 | 23 | 15 | 8 |
| Zotz Motz | 6 | 4 | 0 | 2 | 26 | 19 | 8 |
| MSM Ingenier | 6 | 3 | 0 | 3 | 21 | 10 | 6 |
| Exva Lete | 6 | 3 | 0 | 3 | 22 | 24 | 6 |
| Perrahotsa | 6 | 3 | 0 | 3 | 18 | 19 | 6 |
| Artzankos Udalaiz | 6 | 2 | 1 | 3 | 16 | 15 | 5 |
| Pepelus | 6 | 2 | 1 | 3 | 20 | 21 | 5 |
| Ke Oxtias | 6 | 2 | 0 | 4 | 32 | 21 | 4 |
| Cartonajes Igamo | 6 | 2 | 0 | 4 | 20 | 28 | 4 |
| Leya | 6 | 2 | 0 | 4 | 16 | 23 | 4 |
| Petroleros | 6 | 1 | 2 | 3 | 11 | 20 | 4 |
| Resakas | 6 | 2 | 0 | 4 | 7 | 24 | 4 |
| Kriskibalda | 6 | 1 | 0 | 5 | 15 | 29 | 2 |
| Baneuko | 6 | 0 | 0 | 6 | 8 | 55 | 0 |

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 4 - Toss Tehaman 0
Arrasate Kirolak 4 - Sokoakoak 4
Argi Ibili 4 - Frantziskanner 6
Bukanak 1 - Jotakabau 3
Kamasutra 9 - Alealee 1
Tronkoteak 0 - Uglys Txinato 1
Orlando Piratas 10 - Gualtrapas 1
Sortu Informatika 4 - Totem 4
Gazttxokoa 3 - D. A. Iriztu 7

B Taldea

Las Heredia 2 - Fraguel Gol 2
C Surcos 1 - Okoretegi Taberna 4
Ojo Avisore 3 - Lorategi 5
Berango Sukaldeak 6 - Altza Porru 3
DKB 4 - 6º Proiektua 2
Fosforos 6 - LOs Dalton 4
Txeyenex 3 - Kirten Tropel 0
Hirei 6 - Kopyprest 1
Aizpun Bila 0 - Adelaida Haizea 6

E Taldea

Ex Lete 3 - MSM Ingenieria 2
Pub People 2 - Cerv Leintz 3
Resakas 1 (- 2) - Ke Oxtias 0
Zotz Motz 7 - Baneuko 2
Kriskibalda 1 - Perrahotsa 5
Cartonajes Igamo 2 - Koka Juniors 6
Pepelus 7 - Leya 2
Aurrera Bolie 3 - Artzankos Udalaiz 2
Petroleros 2 - Danok Lagun 2

D Taldea

Cons Fercon 3 - Nuevo taberna 12
No Comment 5 - Txarokis 1
Anbotoste 0 - Ati que te importa 2
Insert Coin 7 - HMKL 2
Lautherbrunner 1 - Arrasate zoo 1
Elisabeth 0 - Trikiti 0
Betrayer 3 - Irati STS 4
Potrosorri 2 - Borroco Roll 3
Los Dimy 1 - Ganbelas 1

Hurrengo partiduak

7. ihardunaldia

Larunbata 18 Zaldibar

8.50 Insert Coin - Txarokis
10.00 Pepelus - Kriskibalda
11.00 Kirten Tropel - Altza Porru
12.00 Orlando Piratas - Kamasutra
13.00 Resakas - Perrahotsa
14.00 Fraguel Gol - Kopyprest
15.00 Ganbelas - ati que te importa
16.00 Hirei - Fosforos
17.00 Gualtrapas - Jotakabau
18.00 Pub People - koka Juniors
19.00 arrasate Kirolak - Uglys Txinato

Iturripe A

11.00 Ex Lete - Petroleros
12.00 Betrayer - Lautherbrunner
13.00 Kakajauri - Gazttxokoa
14.00 AC Surcos - Los Dalton
15.00 Zotz Motz - Cerv Leintz
16.00 MSM Ingenier - Artzankos Udalaiz
17.00 Const Fercon - Los Dimy
18.00 Argi Ibili - Alealee
19.00 Anbotoste - arrasate Zoo

Iturripe B

13.00 Txeyenex - DKB
14.00 Irati STS - HMKL
15.00 Bukanak - Sokoakoak
16.00 Nuevo taberna - Borroco Roll
17.00 Leya - Baneuko
18.00 Toss Tehaman - Totem
19.00 Potrosorri - Elisabeth

Igandea 19

Zaldibar

8.50 Aurrera Bolie - Cartonajes Igamo
10.00 Ojo Avisore - 6º Proiektua
11.00 Daok Lagun - Ke Oxtias
12.00 Los heredia - Aizpun bila
13.00 No Comment - Trikiti

Iturripe A

11.00 Adelaida Haizea - Lorategi
12.00 D.A Iriztu - Frantziskanner
13.00 Berango Sukaldeak - Okoretegi taberna

Protagonistak

J. C. Gonzalez Cerveceria Leniz

— Nola doa txapelketa?

— Orain arte nahiko ondo. Lehen fasean ez dugu ezusterik izan, sei partidu jokatu ditugu eta guztiak irabazi. Ziur bigarren fasera ziur pasatuko garela baina gero ikusi beharko da zer gertatzen den.

— Faboritorik bai?

— Betiko taldeak lehia ibiliko dira baina hala ere, beste talde batzuk gogor ikusten ditut, gurea esate



baterako. Faboritoen artean sorpresak egon daitezke.

— Lesioekin arazorik izan duzue?

— Aurten ez eta Zaldibarren parte hartu dugun beste urteetan ere ez dugu lesio larririk izan.

— Epaileen gainean zerbait esateko?

— Lehen faseko arbitriak txarrak dira. Epaileak ez dira mugitzen eta gainera ez dute ganorarik. Inork ez du epaitu nahi eta hori igerri egiten da.

— Kornerrak nola aterata beharko lirateke?

— Zaldibarren eskuaz ateratzen dira eta hankarekin hobeto litzateke baina horma dagoenez hori ezinezkoa da.

Labur

■ IZEN ALDAKETA

Gaur arte Kinito Team izenez ezagutu dugun taldeak izena aldatu du eta hemen-dik aurrera Cartonajes Igamo deituko da.

■ NEURKETA INTERES-GARRIENAK. Zapatuan Orlando piratas eta Kamasutra; Pub People eta Koka Juniors-en artekoa. Domekan, Los heredia eta Aizpun bila izango ditugu lehia eta baita Adelaida eta Lorategi ere.

Andoni Altube Sokoakoak

— Neurketa irabazten hasi eta gero berdindu, zer gertatu da?

— Ondo hasi gara baina Arrasate Kirolak taldekoek berdindu egin digute. Urduri jarri gara, erdi haserretuta bukatu dugu guztiok eta azkenean berdindu. Dena dela, berdinketa ez da emaitza txarra.

— Talde faboritoak?

— Ez dut harroa izan

nahi baina orain bezala ondo jokatzen jarraitzen badugu gure taldea goian ikusten dut. Joan zen astean Argi Ibili faborito tituloa daraman taldeari irabazi genien, beraz, kontuan hartzeko taldea izango gara. Hala ere, bigarren fasea heldu arte ez dago faboritoak zeintzuk izango diren esaterik.

— Antolakuntza ondo dago?

— Niretzat bai. Beti epaileekin sartzen gara baina lan hori zaila dela



ulertu behar da eta ahalik eta ondoen egiten ahalegin-du guztiok. Bestalde,

antolakuntzak ez du epaile profesionalak jartzeko dirurik eta bigarren fasean epaile finakoak daudenean ere arazoak izaten dira. Epaileen arazoa betikoa da futbolean

— Jakin izan dugunez lehendakaria ere baduzue, ezta?

— Bai Bittortxu da gure lehendakaria eta taldeko burua. Orain ebakuntza egin behar diote eta espero dugu laster sendatzea bestela gure primak kolokan egon daitezke!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila ■

LAN ESKAINTZA

UDALTZAINA

Arrasateko Udalak, **udaltzain plaza bat** modu finkoan betetzeko, eta beste hainbat aldi baterako kontratatu ahal izateko, hautaketa prozesu bat ireki du.

Deialdia arautzen duten **Oinarriak** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, azaroaren 14an, 216 zenbakian argitaratu dira.

Instantziak aurkezteko epea, **abenduaren 4an**, astelehena, arratsaldeko 6,30etan, itxiko da.



Hirei



Potrosorri



Güaltrapas




Koka Juniors



weru[®]
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

● *Justa Montero*

Emakumeen aldeko lan gogorrean

Justa Montero Madrilgo Asanblada Feministaren partaidea da. Mar txan jarri zirenetik, feminista taldeetan sartu zen. Ordutik ez dio sekula militantzia horri uko egin. Txinako ONG-en foroan egon zen eta han go erreflexioen berri eman zuen Monteronen orain gutxi.

- Zer aurkitu zenuen han?

- ONG-en foroan egon nintzen. Emakumezkoen partaidetza harrigarriarekin egin nuen topo, ekintza eta talde ugariarekin. Ideologia eta planteiamendu politiko ezberdinen topagune izan zen; askotan, gainera, norberarekin zerikusirik ez zutenak. Niretzat harrigarria horixe izan zen, emakumezkoen izaera desberdin ugariak, errealtate ezezagun piloa aurkitzea... baina aldi berean, hizketarako eta harremanetarako aukera hortxe egotea, baita eztabaidarakoa ere.

- Foro-aren balorazio ona egingo zenuke?

- Orokorrean balorazioa baikorra da. Hamar urte pasatu dira azkena egin zenetik Nairobiri, eta oraingoa argi

ikusi da feminismoaren hazkunde nabarmena gertatu dela mundu osoan. Talde mailako esperientzia asko dago, biltzeko gaitasun handia, eta teoriaren azterketan aurrerakuntza garbia, baita taldeen proposamenetan ere.

Gainera nazioarteko sareak antolatzeak aukera edo beharra somatu dut, era guztietako gaietarako: bortxakeria, politikak emakumeengan duen eragina, osasuna, ingurugiroa... Azkenean, harremanetan jarri eta batuk bestearen berri izan eta elkarrekin lan egitea litzateke.

- Akordioaren bat hartu zenuten?

- ONG-en foroan ez. Oso zaila da halakorik gertatzea, era guztietako emakumezkoak osatutako foroak izan zen eta. Ondorio batzuetara iristearren iritsiko ginateke, baina batzarraren izaera kontuan hartuta ez lirateke eraginkorregiak izango.

Ondorio orokor edo adostutakorik ez zen egon, baina gai batzuren inguruan antolatutako lan-taldeetan atera dira ondorio batzuk. Arazo asko berdinak dira, horregatik planteiamenduek eta estrategiak berdintsuek izan behar



dute, horrelakoetan atera dira ondorioak eta gertatu dira bat etorriak.

- Batzar gubernamantalarekin bazegoen kompetentzia motaren bat?

- Hark ez zuen gurearekin zerikusirik. Gurean emakumearen askatasunaren alde zer egin daitekeen eztabaidatzeko bildu ginen; bestea, berriz, gobernuetako ordezkarien bilera bat zen, gobernuen eginbeharrei buruzko idatzi baten inguruan adostasun bat lortzeko. Askotan gobernuak beraiek egin behar dena zer den esaten dute; gero ez du zerikusirik izaten emakumeen beharrekin.

- Komunikabideek eman duten informazioaz ere asko hitzegin da...

- Konferentziaren inguruko informazioa ondo samar eman zuten, baina ONG-en foroari buruz eskainitakoa

nahiko txarra izan zen. Izan ere, anekdota hutsean geratu zen ia: kontrola zela, instalakuntzak, euri zaparradak... eta ez zen ezer aipatzen eguneroko eztabaidan edo tailerretan egin genuen lanaz.

- Foroa alde batera, nolakoa da emakumearen egoera gaur egun?

- Ezinezkoa da horretaz balorazio orokor bat egitea.

Aldaketa nabarmenena emakumeen artean bertan gertatu da, antolatzeak gaitasuna garatu dugu, geure egoera aldatzen saiatzen ari gara eta kolektibo moduan arazoak aztertu eta aurre egiteko gaitasuna lantzen. Hori da garrantzitsua.

- Gehitzeko zerbait?

- Bakarrik esatea Txinakoaren ondoren feminismoaren barruan eztabaida bat sortu dela, honelako bileren eraginkortasunari buruz, askotan gauza politikak esateko beste ezertarako ez dute balio eta. Hau da, gobernuak gauza batzuk esan eta gero beste batzuk egiten dituzte, gu emakume bezala adi egongo gara halakorik gerta ez dadin.

● **“Nairobiko forotik hona ikusi da feminismoaren hazkunde nabarmena gertatu dela mundu osoan”**

Euskararekin ikertzen

Ikerlan euskalduntzeko plangintza abian

Maria Agirre

Ikerlanen euskara gutxi entzuten zela eta, orain dela urtebete euskararen erabilera bultzatzeko plana hasi zen. Euskaraz ez dakitenei hizkuntza ikasteko aukera ematen zaie baina plangintzak benetan zera lortu nahi du: euskaldunek lanean ere euskara erabil dezatela.



Iazko urrian hasi zen Ikerlan euskalduntzeko plangintza.

Baina zuk euskaraz badakizu, ala?". Orain arte horrelakoak askotan entzuten ziren Ikerlanen. Jose Ramon Elortzak, Ikerlaneko pertsonal buruak aitortu duenez, "lanean gazteleraz hitzegiten genuenez, gero kafe bat hartzera joaten ginenean ere berdin jarraitzen genuen eta batzuetan ez genekien ondokoa euskalduna zenik ere".

Oraindik ere gaztelerak Ikerlanen pisu handia du baina euskararen erabilera bultzatzeko plangintza ezarri zenetik, euskararen osasunak onera egin du. Harrez gero, behintzat, "baina zu euskalduna zara?" bezalako rik ez da entzuten.

PENTSATU ETA EKIN

Ikerlan 170 langileko kooperatiba da. Horietatik %62 euskaldunak dira eta %38 erdaldunak. Euskaraz dakitenak dexente izan arren, euskarak enpresan zuen ohiartzuna txikia zela eta, langile talde bat egoera hori hobetzeko zer egin zitekeen eztabaidatzen hasi zen. Zentzu horretako saiakerak aurrez ere egin ziren. 89an, euskara ikasteko euskalduntze eta alfabetatze eskolak antolatu ziren, baina ekimen hura indarra galduz joan zen. Antzuolako Elay-n lantegia euskal-

duntzeko zerbait berezia egin ari zirela eta, Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin (orain arte HPIN izenez ezaguna izan denarekin) harremanetan jarri ziren eta horiek Elhuyar-ek diseinatutako plangintzaren berri eman zieten. Plangintzaren helburua: enpresan euskararen erabilera bultzatzea.

Plangintza hasi baino lehen, Ikerlanek plana aurrera eraman ahal izateko behar ziren baldintzak betetzen zituen aztertu zen. Enpresak eskatzen den gutxiengo euskaldun kopurua du, zonalde

euskaldunean dago eta langileak gazteak dira. Baldintzak betetzen zirela ikusita, langile bakoitzari inkesta egin zitzaion, benetan euskararen alde zerbait egiteko gogo zuen jakiteko. Gehiengoak eta zuzendaritzak baietza eman zioten plangintzari, eta iazko urrian plana abian jarri zen "nahiz eta baietz horren atzetik zer zetorren garbi ez genuen ikusten" dio J.R. Elortzak.

PLANA ZERTAN DEN

Asko dira planean parte-hartzea duten erakundeak.



Hogeitahamar langilek euskarako eskolak jasotzen dituzte egunero.

Arrasateko Udalak Euskara Zerbitzuaren laguntza jarri du plangintzaren esku, eta baita planari jarraipen zuzena egiten dion teknikaria ere. Horrez gain, Udal Euskaltegiko hiru irakaslek eskolak ematen dituzte Ikerlanen. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak bestalde, dirulaguntza eta bere esku egon daitezkeen laguntzak ematen ditu, Elhuyar-ek laguntza tekniko eta HABEK plangintzari jarraipena egiteko tekniko du. Guzti horien laguntzarekin, hiru zutabetan oinarritua dagoen plangintzak aurrera egiten du.

Plangintzaren bizkarhezurra komunikazio zirkuluak dira. Zirkulu horietan Ikerlaneko langile euskaldunek parte hartzen dute. Taldea hamabostean behin ordu-betez batzen da. Langileek euskararen erabilera bultzatzeko bakoitzaren departamentuan edo enpresan zer

egin daitekeen aztertzen dute. Hortik proposamenak irteten dira eta ondoren, Zuzendaritzara eramaten dira. Ikerlanen zortzi zirkulu osatu dira eta guztira laurogei langile dira zirkuluetan parte hartzen dutenak. Langile gehienak plangintzan baina egun erdiz lan egiten dutenak, (bekadunak eta Alecoop-eko langileak), hortik kanpo geratu dira, hogeitamar langile.

Erabilera bultzatzea garrantzitsuena den arren, erdaldunei ere euskara ikasteko aukera ematen die plangintzak. Bigarren zutabea horiendako dauden eskolek osatzen dute. Udal Euskaltegiko hiru irakaslek goizero ordubetez hogeitamar langileri euskara irakasten diete.

Hirugarrenik lan-interbentzioak daude. Momentu jakin batean ematen diren ekimenei deitzen zaientzako dira horiek. Adibidez, langile batek

zerbait euskaraz idatzi nahi badu eta zalantzaren bat sortzen bazaio, teknikariarengana jotzen du laguntza eske. Karmele Zuazubiskar, teknikariak dioen bezala "oraingoz lan-interbentzioek indar txikia dute baina garrantzia hartuz joango dira".

Hiru zutabe horietatik kanpo, baina plangintzari jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea dago. Batzordea hiru hilabetero batzen da gauzak zelan doazen ikusi eta proposamen berriak aztertzeko. Planean partaidetza duten guztiak batzen ditu batzordeak.

BI URTE AURREAN

Urtebete pasa da plana abian jarri zenetik. Karmele-ren eta Jose Ramonen esanetan oraindik goiz da aurrerapausurik eman dela esateko. "Urtebete pasa denean planak aurrera egin dezakeela ikusten dugu. Hemendik urte bate-

ra emaitzaren bat lortu dugula esateko moduan egongo gara baina oraindik oso goiz da". Bien ustez, Ikerlanen egiten ari direna euskararen alde egin daitekeen gutxiena da. "Egiten ari garen ahaleginari ez diogu aparteko garrantzia eman nahi, baina gustatuko litzaiguke beste enpresa batzuegan eragina izatea. Plangintza ez da zaila, sinplea da baina tamalez enpresa oso gutxi egiten dute. Beste enpresa batzuetan jarraipena izaten badu, euskara enpresetan sartzeko era egokia izan daiteke".

Ikasketak euskaraz egin arren, lanean hastean euskararekin etena izaten du askok. J.R. Elortzak esan bezala "eskoletan euskararen alde egiten den ahaleginak jarraipenik izaten ez badu aurrez egindakoa hutsean geratzen da. Alde horretatik ere, plangintza garrantzitsua da".

Pako Bedia arrasatearra bigarren denboraldia Numancia futbol tadean

Pako Bedia arrasatearra izan arren, Soriako Numancia taldeko jokalaria da 94-95 denboralditik. 31 urteko erdilari honek ez du ahaztuko Numancia taldearekin Errege kopako lehen kanporaketan bizi izandako une gozoa. Pronostiko guztiak hautsiz Soriako taldeak lehen mailako Erreala txapelketatik kanpo utzi zuen. Pakok era berezian gogoratzen du Anoetan jokaturako neurketa.

— Zer sentitu zenuen Errealari irabazi ondoren?

— Numanciako jokalarientzat sekulako arrakasta izan da. Pertsonalki poz handia eman dit baina era berean nolabaiteko tristura, bihotzean daramadan Erreala txapelketatik kanpo geratu delako.

— Txapelketa hasi aurretik espero zenuten halakorik?

— Gure helburua diru apur bat lortzea zen eta kirol mailan itxura ona erakustea. Bage-nekien lehen mailako talde bati irabaztea ez zela samurra izango, eta itxaropentsu egon arren zaila ikusten genuen kanporaketa. Azkenean, ekonomikoki ondo irten zaigu eta kirol aldetik primeran.

— Nola ospatu zen Sorian?

— Bazirudien Europako kopa irabazi genuela, jendea zoratu egin zen, komunikabide guztiak atzetik izan genituen... oso une hunkigarriak izan ziren. Dena dela, lorpena handia izan arren, badakigu gure erronka handiena liga dela eta hor erakutsi behar dugu maila.

— Penaltirik ez zenuen jaurti, zer dela eta?

— Batetik behatzazal bat ez nuen ondo eta botak min ematen zidaten; bestetik aurre-



tik esan nien taldekideei penaltiak egonez gero, azkena izango nintzela. Etxean jokatzan nuen, Erreala nire betiko taldea da... egoera berezia zen niretzat. Azkenean eskerrak Albertok huts egin zuenari, bestela hurrengo ni nintzen.

— Talde askotan ibilitako jokalaria zara, ezta?

— Mondran eman nituen lehen urratsak. Hainbat denboraldi bertan izan eta gero, Alavesara joan nintzen, handik Sestaora, Durangora eta Soriara etorri aurretik Barakaldon..

— Nola joan zinen Soriaraino?

— Heziketa fisikoa ikasi nuen Gasteizen, gero Almenen irakasle izan nintzen hiru urtetan baina fisioterapia ikas-

teko ilusioa neukan. Lotina Numanciako entrenatzailea ezagutzen nuen eta esan zidan gustora hartuko ninduela taldean. Fisioterapia ikasketak bertan egin behar nituen, aukera paregabea iruditu zitzaidan. Beraz, bi bider pentsatu barik hona etorri nintzen eta ez naiz damutzen. Gutxitan izaten dira horrelako aukerak.

— Futboletik bizi zara edo baduzu beste lanbiderik?

— Numancian ondo bizi daiteke futboletik. Euskadiko taldeetan baino diru gehiago irabazten da. Nik astean zehar entrenatu eta fisioterapia ikasten dut, astebukaeretan ligako partiduak ditut.

— Etxetik kanpo egotean zer izaten da gogorrena?

— Familia, andregai eta lagunak uztea, Euskal Herriko giroa ere botatzen da faltan. Kanpoan etxea izaten da gogoan.

— Jokalari bezala gogoratzen dituzun une onenak eta txarrenak?

— Txarrak ez ditut asko. Beharbada Mondrarekin preferente mailara jeitsi ginen urtea. Onak berriz, Sestaokin 2.A mailan debutatu nuenean. Beste une gozo bat Errealarekin entrenatzen ibili nintzanean, Sansen egon nintzen eta askotan lehen mailakoekin entrenatzen nuen Arkonada, L. Rekarte, Bakero... une ahaztezinak dira eta nola ez, Errealari irabaztea.

— Futbola utzi ondoren zer egitea gustatuko litzaizuke?

— Entrenatzailea izatea gustatuko litzaidake, ez dakit non baina nire ametsa entrenatzaile izatea da eta ahalik eta urrutien heltzea mundu horretan. Aurrez badakit oso zaila dela.

— Herriko kirola jarraitzen duzu?

— Bai, Mondra jarraitzen dut eta badakit ez dabilena ondo. Futbolaz aparte gaintzeko taldeen berri izatea ere gustatzen zait.

— Gustatuko litzaizuke futbolaria urteak etxeko taldean bukatzea?

— Alde batetik bai, baina bestetik ez dut gogorik berriro beste talde batera joateko. Orain Numancian ondo nago, dagoeneko 31 urte ditut eta uste dut hemen bukatuko ditudala jokalaria urteak. Urte batzuk barru, beharbada, entrenatzaile lanetan joan naiteke herriko taldera, batek daki!

Pako Bediari kirol guztiak gustatzen zaizkio ikusteko eta egiteko, baina musika da bere zaletasun handiena



Rosa Lasagabasterren mutilek ezin dute kale egin Beti Onak taldearen kontra

Mondra eta eskubaloikoek jokatuko dute etxean

Mondra taldeak azken neurketa irabazi arren, oraindik egoera kezagarria da eta epe motzera ez da konponbidea ikusten. Taldeak domekero irabazteko ahaleginak egin, eta jokalariek zelaian dena ematen badute, emaitzak ez dira aldekoak eta gaur arte Zivojeciven taldeak bi neurketa baino ez ditu irabazi eta bederatzigaldu.

Atzealdean taldeak duen hutsunea konpondu asmoz, astelehenean bertan, Raul Treviño Gasteizko atzelaria fitxatu zuten. Raulek 23 urte ditu eta Gasteizko Aurrera taldean aritu ondoren, azken denboraldian Almerian izan zen. Esperientziadun jokalaria dirudi eta bere lana garrantzitsua izan daiteke taldearentzat.

Fitxaketan kontuak alde batera utziz, datorren dome-

kan neurketa gogorra eta zaila jokatuko du Mondrak Elgoibarren kontra Atxabalpen 3.45etan. Elgoibar 3. mailako liderra da 26 punturekin eta gol gehien sartu duena ere bai, 27 gutzira. Horrelako derbietan zer gertatuko den ez dago esaterik eta askotan gainera usteak ustel geratzen dira.

Rosa Lasagabasterren mutilek lehen garaipenaren bila

Arrasate eta Beti Onak taldeek elkarren kontra jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 6.30etan Iturripen. Rosa Lasagabasterren taldeak ondo jokatuko arren, aurten ez du zortetik eta ez du oraindik neurketarik irabazi. Lehen garaipena lortzeko aukera ona

izango du zapatuan. Beti Onak taldeak gaur arte jokatutako partiduetatik lau galdu ditu eta bakarra berdindu. Taldeko jokalaria arrisurtsuena Sanchez hegalekoa da. Horri ondo eusten badiote gainontzekoekin ez dute arazorik izango arrasatearrek. Etxeko taldean Kortabarria erdi lesioan dago baina partidu egunerako kantxaratzeko moduan izango da.

Emaitza txarrak direla eta, eskubaloikoak kezkatuta daude. Taldea joku ona erakusten dabil baina azken minututan galtzen dira neurketak.

Taldeko ordezkariek, dena dela, konfidantza osoa dute entrenatzaile eta jokariengan eta arazoa laster batean konponduko delakoan daude.

Saskibaloikoak Galzianaraino joango dira

Urbina Maltzaga Ourensera joango da Viña Costeira taldearen kontra indarrak neurtzera. Partidua domekan jokatuko da arratsaldeko 5.30etan. Viña Costeirak jokatutako neurketetatik 9 galdu ditu eta bakarra irabazi. 16. dago sailkapenean 11 punturekin. Taldea itxuraz ez da sendoa baina etxean jokatzen duenean jarraitzaileen laguntza izaten du eta zaila izaten da han irabaztea.

Urbina Maltzagak, dena dela, ezin du kale egin eta garaipenarekin etorri behar luke. Taldeko jokalaria guztiek normaltasunez entrenatu dute eta baja bakarra Pedro Rodriguez izango da. Jokalaria horrek Taugres-ekin jokatuko du Gijon taldearen kontra. Pronostikoak betetzen badira, denboraldiko 6. garaipena lor dezakete arrasatearrek.

Emakumeek derbia Almenen kontra

Mondrako emakumeek Almen taldearen kontra neur-tuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 3.30etan Almenen. Mondrautarrek ez dute inolako arazorik izango aurkaria gainditzeko. Arrasateko neskak liderrak dira eta Almenekoak sailkapeneko zuloan daude, larri eta estu.

S. CARPASCAL

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armoiru enpoitratuak

Fabrikari erakusketa

GIPUZKOA ETORBIDEA,
6 -1A

Bitxori

ileapaindegia

Errebuealta, 10 behea ARRASATE Tfnoa: 79 27 61

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta


Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Gero eta arrasatear gehiago Behobia-Donostia Lasterketan

Behobia-Donostia herri lasterketa burutu zen domekan. Arrasateetik sekula baino korrikalari gehiagok hartu zuen parte, 74 lagunek guztira. Horietatik zazpi emakumeak. Hauen artean azkarrena helmugatik pasatzen, Antonina Pacho izan zen, ordu bete 32 minutu eta 44 segundu behar izan zuen bukatzeko. Gizonezkoen artean Enrike Kabiketa 37. tokian

sailkatuz arrasatearren arteko onena izan zen. Bigarrena Jabier Mentxaka.

Arrasateko korrikalarien sailkapena aurkituko duzue ondoren. Zerrenda behin behinekoa da eta azaroaren 30a arte erreklamazioak egiteko aukera dago. Horretarako izena, helbidea, egin duzuen ustezko denbora eta dortsalaren zenbakia bidali behar duzue Fortuna taldera, 856 postakutxatila Donostia.



Sailkapena

| | | |
|------|-----------------------|------------|
| 37 | Enrike Kabiketa | 1. 7' 39" |
| 60 | Jabier Mentxaka | 1. 9' 2" |
| 98 | Francisco Andres | 1. 11' 4" |
| 196 | Cesar Diez | 1. 13' 59" |
| 227 | Alejandro Altuna | 1. 14' 53" |
| 255 | Joseba Ugalde | 1. 15' 33" |
| 511 | Jon Aperribai | 1. 19' 39" |
| 1041 | Bittor Amozarrain | 1.24' 38" |
| 1150 | Garikoitz Pereda | 1.25' 23" |
| 1197 | Miguel Angel Narbaiza | 1. 25' 41" |
| 1263 | Andoni Garcia | 1.25' 58" |
| 1270 | Juan Carlos Caballero | 1.25'59" |
| 1304 | Angel Garcia | 1. 26'21" |
| 1368 | Jose M. Pacho | 1.26'40" |
| 1453 | Ruben Ramos | 1. 27'9" |
| 1458 | Jose Maria Lopez | 1.27'11" |
| 1500 | Felix Terrazas | 1. 27'24" |
| 1596 | Agustin Hernandez | 1. 27'55" |
| 1909 | Jesus M. Barrena | 1. 29' 47" |
| 2040 | Jon Andoni Urkiola | 1. 30' 32" |
| 2165 | Juan Carlos Garcia | 1.31' 5" |
| 2239 | Iñaki Jauregi | 1. 31' 29" |
| 2506 | Antonina Pacho | 1. 32' 44" |
| 2553 | Jabier Arribas | 1.32' 58" |
| 2733 | Tomas Del Rio | 1. 33' 47" |
| 2760 | J. J. Ortuoste | 1. 33' 53" |
| 2880 | Jokin Mugika | 1. 34' 25" |
| 2978 | Felix Zugasti | 1. 34' 56" |
| 2982 | Urtzi Axpe | 1. 34' 57" |
| 3011 | Mikel Arana | 1. 35' 4" |
| 3290 | Pili Valdezate | 1. 36' 18" |
| 3622 | Felix Corres | 1. 37' 46" |
| 3690 | Eduardo Abarrategi | 1. 38' 6" |
| 3813 | Juan Pablo Balerdi | 1. 38' 34" |
| 3821 | Krispin Valdezate | 1. 38' 36" |
| 3923 | J. J. Beitia | 1. 39' 7" |
| 3937 | Pedro Cruz | 1. 39' 8" |
| 3938 | J. Antonia Izagirre | 1. 39' 9" |
| 3944 | Imanol Talledo | 1. 39' 10" |
| 3979 | Xabier Iturbe | 1. 39' 19" |



Goialdean Enrike Kabiketa, Arrasateko onena, azpian lasterketaren momentu bat.

| | | | | | |
|------|-------------------------|------------|------|--------------------------------|------------|
| 4016 | Manuel Silvar | 1. 39' 27" | 5873 | Aitor Etxabe | 1. 47' 54" |
| 4020 | Alfredo Alonso | 1. 39' 28" | 5904 | J. Luis Corcuera | 1. 48' |
| 4122 | Joseba Heriz | 1. 39' 53" | 5912 | Asier Aranguren | 1. 48" |
| 4199 | Aitor Laskurain | 1. 40' 9" | 5913 | Amaia Garai | 1. 48' |
| 4303 | M ^a Jose Gil | 1. 40' 31" | 6029 | Iñaki Arizmendiarieta | 1. 48' 45" |
| 4312 | Heriberto Zubia | 1. 40' 36" | 6131 | Xabier Arkauz | 1. 49' 11" |
| 4330 | J. Maria Larrañaga | 1. 40' 43" | 6821 | Pilar Ojuel | 1. 53' 25" |
| 4463 | Pedro Belinchon | 1. 41' 10" | 6822 | Jesus M ^o Albistur | 1. 53' 26" |
| 4464 | Iñaki Telleria | 1. 41' 10" | 6988 | Enrike Valgañon | 1. 54' 27" |
| 4555 | Patxi Ugarte | 1. 41' 33" | 6990 | Enrike Mazmela | 1. 54' 28" |
| 4738 | Xabier Mendiadua | 1. 42' 28" | 6991 | Jesus M ^a Aranguren | 1. 54' 28" |
| 4842 | Iñaki Egiluz | 1. 42' 57" | 6992 | Jesus M ^a Mendiartx | 1. 54' 28" |
| 4979 | Ramon Barrutia | 1. 43' 41" | 6994 | J. Luis Arroiabe | 1. 54' 28" |
| 5042 | Miren Bengoa | 1. 43' 55" | 7425 | Mertxe Beltran de Guevara | 1. 58' 7" |
| 5236 | J. Jose Primoy | 1.44' 48" | 7554 | Mauri Agirre | 1. 59' 35" |
| 5241 | J. Carlos | 1. 44' 49" | 7578 | Etor Goikoetxea | 2. 0' 00" |
| 5250 | Karmelo Uribarren | 1. 44' 50" | 7709 | Miren Arizmendiarieta | 2. 1' 26" |

Ez pasatu orrialdea!

Iragarki hau irakurtzeak lan asko kenduko dizu.

Zure etxebizitza jantzi nahi baduzu, erreformak egin edo gelaren bat apaindu...

Behar duzun guztia **ANEREA**n aurkituko duzu: Sukalde eta bainu altzariak, keramika, logela, egongela eta sarrerarako altzariak, su-bajuak, elektragailuak, lanparak, apaingarriak...

Bai guzti, guztia zure zerbitzura:

- Salmenta
- 1.500 m²tik gorako erakusketa
- Diseinua
- Dekorazioa
- Erreformak
- Apaingarriak
- Muntaia, gremio guztiak

Eta dena toki berdinean!!




ANEREA

Laister zabaltzekotan!

GALERIA DEL HOGAR


Markulete Industrialdea 21, 22 pabilioiak
ARRASATE



les Vascongados Bilboko enpresako autobus bi eta Elgetako Olabarriaren autobusak eraman zituzten ibilbidea egiteko. Alde handia zegoen batetik bestetara, bat aldapetan ezin igota geratzen zen, baina lauan abiada bizian joaten zen; beste biak, kontrakoak. Bata bestearen zain egoten ziren. Aurrekoan esan bezala kanpinean ibili ziren gehienbat, baina kanpinak ez zituzten bertatik eraman. Hessner izeneko alemaniar batekin harremana zuten eta hari eman zioten kanpinera-ko beharrezko tresnak erosteko lana. Autobusak Alemaniara iritsi zirenerako, zain ei zegoen alemaniarra traste guztiekin. Ondo baino hobeto aprobetxatuko zituzten ondorengo egunetan. Hori datorren astean ikusiko duzue.

rain bi asteko gaiari egingo diogu tira oraingoan ere. Bruselasa joan ziren guztien argazkia daukatzue goian. Ondo begiratu gero, makina bat aurpegi ezagun ikusteko aukera, txiki samar egon arren. Aldamenean hamabost eguneko oportetarako Eskolak prestatu zuen egutegia eta ibilbidea, gazteleraz aterata garai hartan. Egutegia bete-betea zen, eta gehiena egin arren, ez zuten osatzerik izan.

Compañía de Automovi-



Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

EGVZKiGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Corazón de Encina kultur talde estremadurarra Orain bi urtetik Eskatun

Corazón De Encina" kultur talde estremadurarra bere lokalaren bigarren urtemuga ospatzen ari da egunotan. Bi urte pasatu dira 1993ko azaroaren 20an Arrasateko estremadurarrak euren lokala estreinatu zutenetik eta orain ospakizuntan dabilta.

Santamainatik Eskatura


1991an elkarteak legeztatuta eta estatutuak finkatu zirenetik, kultur-etxe estremadurarran aurrerapausoak baino ez dira eman. Atzean geratu zen Santamainan lokal gisa erabili zuten 60 metro karrauko Fronton taberna. Bazkideek lokal handiago baten beharra somatu zuten berehala eta 1992ko maiatzaren 17an egindako asanbladan, Eskatun lokala erostea erabaki zuten. Garai hartan Corazón de Encinak 160 bazkide zituen eta lokala erostea pentsatu zenean, bazkide bakoitzak 100.000 pta.ko dirulaguntza eman zuen. Bazkide askok horrelako proiektu handi baten



Oso ondo egokituta dago egoitza.

beldurrez atzera egin zuen eta azkenean, 102 bazkidek emandako diruarekin eta mailegu handi baten bidez ekin zioten proiektuari.

Jesus Rodriguezek, elkarte lehendakariak, lokalaren maileguari aurre egitea zaila izan arren, egindakoarekin oso pozik daudela esaten du: "Maileguari aurre egiteko ahal dugun neurrian aurreratu egiten dugu. Lokalaren garbiketa lanak bazkideok egiten ditugu eta taberna ere guk eramatzen dugu. Lan asko egiten dugu baina egunero egunero



Jesus Rodriguez lehendakaria.

lokala beteta egoten dela ikustek aurrera jarraitzeko gogoan ematen digu".

Integrazioa

Lehendakariak aipatzen duenez, Arrasaten guztiz inte-

gratuta sentitzen dira. Beste kultur etxe nahiz elkarteek, Al Andalus, Hies-Ekimena, Aita Menni eta Gurütze Gorriak adibidez, jaialdi eta abarretan parte hartzeko deitzen diete.

Jesus Rodriguezen hitzen arabera, "gure asmoa estremadurarrak elkartzeko toki bat edukitzea eta herrian integratuago egotea zen. Lokal honen bidez herritarrengandik aparte egotea nahi genuela pentsatuko zuen askok baina gure helburua kontrakoa da".

Elkarteko taldeak

Gaur egun Corazón de Encina kultur elkarteak hainbat kultur eta kirol talde ditu: Koro eta dantza taldea, txikiendako dantza taldea, bi antzerki talde, rumba taldea, El trío Estrella kitarra hirukotea, akordeoi bikotea eta futbito-ko lau talde.

Elkartearen martxarekin pozik daudela esaten du lehendakariak. Berau aurrera ateratzek lo ordu asko, ahalegin handia eta bilera asko egitea ekartzen duen arren, merezi duela frogatu dute.

ARRASATEKO IRAKASLE ETA IRAKASLE OHIEN ARTEKO AFARIA!

Arrasateko AEK-ko euskaltegian edo gau-eskolan irakasle izan bazara, afari bat daukazu abenduak 15ean (ostirala). Kriston giroa ziurtatuta dago, beraz anima zaitetz eta eman zure izena AEK-n. **Tfnoa: 77 03 69.**
Izena emateko epea: azaroak 24.

Oharra: Irakasleen zerrenda osoa ez daukagu, beraz gonbidapen gutuna jasotzen ez baduzu jo zuzenean ERDU-AEK-ra.





ZERBITZU ONENA, ZURE EROSKETAK
EROSOENAK IZAN DAITEZEN.



OKENDO
KIROLAK

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • Tfnua: 79 92 76

Z E R N A H I A G O ?

Luci Tena

Saburdi harategiko langilea

- **Zergatik "Saburdi" izena?** Hemen lan egiten duen neska baten baserriaren izena delako. Baserria Musakolan dago.
- **Nondik ekartzen duzue okela?** Elgoibartik eta Saburdi baserritik.
- **Ez al dago nahiko harategi Arrasaten berri bat zabaltzeko?** Bai, baina denetik dago asko.
- **Ze ordutan zabaltzen duzue harategia?** Goizeko zortziretan.
- **Eta itxi?** Gaueko 9etan.
- **Etotzen dira gizonak erostera?** Bai, baina emakumeak baino gutxiago.
- **Arrasatearrek zer erosten dute gehien?** York urdaiazpikoa.
- **Ze otarteko dituzu gustokoen?** Gaztakoak.
- **Zeri diozu beldura?** Altuera handiei.
- **Hemen egoteko txapelik jartzen duzu?** Ez, ilea batzearekin nahikoa da.
- **Karta joku bat?** Ez zait kartaka jokatzeko gustatzen.
- **Non egiten dituzu erosketak?** Herriko dendatan eta azokan.
- **Erosi duzun azken arropa?** Praka beltzak, kamiseta eta jertse bat.
- **Telebistan zer ikusten duzu?** Gutxi ikusten dut baina ikustekotan informatiboak.
- **Arrasatek kanpo bizi izatera joan behar izango bazina, nora joango zinateke?** Getariara.
- **Non jaio zinen?** Gasteizen.
- **Zure defekturik handiena?** Oso lotsatia naiz.
- **Maniarik baduzu?** Bai, txukuntasuna.
- **Paperezko ala telazko musuzapiak?** Paperezkoak.
- **Ze koloretakoa da zure pijama?** Larrosa.
- **Zer egiten duzu asteburuetan?** Herrian bueltaka ibiltzen naiz lagunekin.



Ipuin Tailerra

AEDk, iaz bezala, ipuin tailerra antolatu du. Tailerra idazteko zaletasuna duten 15 urtetik gorakoentzat da. Eskolako larunbat goizetan edota interesatuen artean adostutako egun eta orduetan izango dira. Parte hartzaileek Marije Gomez ipuinzailea izango dute irakasle. Izena emateko edo argibiderik jasotzeko 771228 telefonora deitu.

Komiki lehiaketa

Jardun elkarteak Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, IV. Komiki Lehiaketa antolatu du. OHOk 6. maiatik gorako edozeinek har dezake parte eta lehiaketa 3 mailatan banatuko da. Euskeraren aberastasuna eta zuzentasuna, argumentoa eta marrazkien kalitatea eta originaltasuna baloratuko da.

Lanak aurkezteko epea abenduaren 14an bukatuko da eta sari banaketa 29an arratsaldeko 8etan egingo. Lanak Jardun Elkartea, Masterreka 13, behea. 20.570 Bergara helbidera bidali behar dira.



Alkoholarekin arazoak daukazazu?

Agian,

"Alkoholiko

Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



ARRASTRO
Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispilua.

BIGAREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONENEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

Gure ordutegia hurrengoa da:

Asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara,
Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**


**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

• ESAERA •

“Tonto jakintsua ezer ez dakien tontoa baino tontoagoa da”

MOLIERE

• JEROGLIFIKOA •



Ez zikoitza.

• GURUTZEGRAMA •

| | | | | | | |
|----|---|----|----|---|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | | | 9 | | | |
| 10 | | | | | | |
| 11 | | | 12 | | | 13 |
| 14 | | 15 | 16 | | 17 | |
| 18 | | | 19 | | 20 | |
| 21 | | | | | | |

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasate Gidaren egilearen izena. 5. Seme-alabak dituen emakumezkoa. 8. Jatorrizko. 10. Tasatzearen ekintza eta ondorioa. 11. Gar. 12. Apal. 14. Mendeku. 17. Ezerez falta zaioan. 18. (Ald.) Atsegin. 20. Torioa. 21. Inausteko erabiltzen den tresna.

Bertikalak 1. Erraz lotsatzen dena. 2. Jarraikortasuna. 3. Errepikapen adierazteko hitza. 4. Euskararen Gaitasun Agiria. 5. Adorez, kemen. 6. Maoismoarek dagokiona. 7. Almeriako ibilgailuetan. 9. Ikara, beldur. 13 Zikin. 15. Euskadiko Karlista Alderdia. 16. Lehen-aldiko NINDUEN, orain-aldian. 19. (Ald.) OSLOko kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Astelehena da asteko egunik onena. Asteburuetan etxean.

Taurus Ez duzu egia esan. Oraindik arazoa konpontzeko astia duzu.

Gemini Ametsetan egiten duzu eta gauza askotaz ez zara konturatzen.

Cancer Boleroak entzuten hasi ei zara. Maiteminduta ala?

Leo Bazen garaia zerbait ikasten has-teko!

Virgo Aldaketa dator zure bizitzan. Aldaketa gogorra.

Libra Garbi jokatu zure lagunekin. Gezurretan ibiltzeak ez du merezi.

Scorpio Laguntza magikoen bila bazabiltz alperrik ari zara.

Sagitaris Txorutzen jartzen zara kritikaren bat jasotzen duzunean.



Capricorn Gau-txori galanta egi-na zaude. Zerk du gauak?

Aquarius Zelako komeriak egiten dituzun mesederen bat eskatu nahi duzunean.

Piscis Tamalez mundu honetan gauza asko irentsi behar dira.

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!


Anna de Codorniu

Nafarroako eta Bizkaiko musika taldeak "Nor Nori Rock" en

Datorren asteko "Nor Nori Rock" musika saioan, Kaitinek eta Liernik Nafarroako eta Bizkaiko bi talde aurkeztuko dituzte; Nafarroako "Flitters" eta Erandioko "Daysi Cutters" taldeak. Lehenengo taldeak duela gutxi Ermuan emandako kontzertu bateko abestiak entzun ahal izango dira asteazkeneko saioan eta bigarren taldeko, abestiez gain, musika saio honetako lankideek taldeari egindako elkarrizketa ere eskainiko dute.



KOMIKIA



Aitor Lodoso. Ixe-ixa komiki taldea.

Etxe-Bundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria


2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza
Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



17 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Elkarrizketa: Jose

Ramon Elortza,

Elkarriko kideak,

Borondateen kontratua

zer den azalduko du.

20 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

21 Asteartea

19.30etan

Marrazki bizidunak

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

22 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

23 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Dokumentala

24 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

SOLUZIOAK

Jergolifikoa:

Eskuzabala.

19. Ls.

Al. 9. Izu. 13. Lohi. 15. EKA. 16. Nau.

Bis. 4. Ega. 5. Antmo. 6. Maosta. 7.

Bertikalak: 1. Lortsati. 2. Iraupen. 3.

21. Inauskat.

14. Apen. 17. Oso. 18. Tekal. 20. Th.

Horizontalak: 1. Libe. 5. Ama. 8.

Etxebizitzak

- **Gasteizen bi logela alokatzen ditut.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxabea alokatzen da Udalpe kalean (Erguin).** Tfnoa: 79 22 75.
- **Pisua salgai Erguin kalean.** Tfnoa: 77 02 01. Loli.
- **Garajea salgi Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Roneon lehen solairuan garaje itxia** alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 18 95.
- **Eskoriatzako sarreran jantzitako pisua** alokatzen da. Tfnoa: 79 87 26.
- **Lagun bat behar da** Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Bi oheko logela alokatzen da** eta nahiez gero pentsio osoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Lokala alokatu nahi dugu.** Egoera txarrean badago guk konponduko dugu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Etxebizitza bat alokatuko nuke.** 50.000-60.000 pta. bitartean. Interesatuek dei egin 79 90 09 tfnora. Josema.
- **Pisua alokagai Juan Carlos Gerra plazan.** Dei egin goizez 79 35 50.

Lana

- **Umeak zaindu** edota etxeko garbitasunak egingo nituzke. Tfnoa: 79 96 10. Eguerdietan.
- **UBIra arteko edozein gaien klaseak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz, astelehenetik larunbatera arratsaldez. Tfnoa: 79 46 75. Gauzez deitu.

- **Masaia terapeutikoa eta akupuntura.** Tfnoa: 79 18 02. Blanca Iñiguez.
- **Emakumea etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Esperientziadun kamioi txoferra lan egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 31. Alfonso.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Enpresaritzan lizentziatu batek klase partikularrak emateko prest.** OHO, 1. 2. 3. REM eta UBIko ikasleei. Tfnoa: 79 47 95.
- **UBI mailako matematikak eta fisika** irakatsiko dizkidan irakasle bila nabil. Ahal bada euskaraz. Tfnoa: 79 96 05.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin,** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko goizeko 8etatik 2etara. Tfnoa: 79 68 18. Idoia.
- **Filologia Klasikoan lizentziadunak,** latina, grekera mordernoa eta klasikoa emango lituzke. Tfnoa: 77 14 14. Dei egin 5etatik 7etara.
- **Neska prest etxeko lanak egin** eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Esperientziadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Injinerutzako 1. mailako** fisikako klaseak hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.
- **Emakumea lan egiteko gertu.** Etxeko lanak edo umeak zaindu. Tfnoa: 79 74 92.
- **AEK-k EGArako irakaslea behar du.** Beharrezkoak EGAduna eta diplomatua izatea. Dei egin 77 03 69 tfnora.
- **Euskarazko 2. eta 3. urratseko klaseak** ematen ditut 7etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 98.

Salerosketak

- **Kerosenezko berogailu elektronikoa salgai.** Temperatura programatzekoa du eta berri-berria dago. Tfnoa: 79 13 73.
- **Arditxakur kumeak salgai** 5.000 pta.tan. Tfnoa: 78 09 08.
- **Otsein markako garbigailua salgai.** Oso egoera onean eta gainetik betetzekoa. Sofa-kama bata ere salgai dut. Tfnoa: 79 35 45.
- **Samsung markako idazteko makina salgai.** Prezioa: 18.000 pta. Tfnoak: 77 14 96 eta 79 29 68.
- **Oso egoera onean dagoen Seat 127a salgai.** SS-K. Oso prezio onean!. Tfnoa: 79 97 23.
- **Yamaha MT 8 X magnetofonoa salgai.** 8 pita. Berria. Tfnoa: (945) 27 44 26.
- **Liburuendako koloretako** metalezko apalak salgai. Tfnoa: 77 07 82. Marije.
- **Paolo Soprani akordeoia salgai.** 96 baxu, oso egoera onean eta oso merke. Tfnoa: 79 40 51.

Denetarik

- **Arrabala dendan betaurreko graduatu batzuk agertu dira.** Zureak badira dendan bertan ditugu. Tfnoa: 79 23 40.
- **Mintza praktika egiteko** jatorrizko ingeles baten bila nabil. Tfnoa: 79 26 28.
- **Azaroaren 8an Arrasateetik Eskoritzara** motorean nindoala giltzak galdu nituen. Aurkitu badi-tuztu dei egin 79 75 80 tfnora.
- **Egunero Gasteiza joaten naiz** goizeko 8etan autoz Lekua dut, beraz, etorri nahi baduzu eramateko prest nago. Tfnoa: 77 02 74.

Aste Gazte

Bekak

• Alemaniako Enbaxadak deituta, A) Alemaniera ikasteko kurtsuak Alemaniako Goethe institutuan, 96ko udan. Lizentziaturako azken kurtsoko ikasleei zuzenduta, Filologia Alemanekoa izan ezin. Alemaniera ezagutzea eskatzen da. B) Ikastaroak Alemaniako Unibertsitatean, 96ko uda. Ikasle unibertsitarioei zuzenduta edota katedra laguntzaile-espezialitate guztietan. Alemaniera ezagutzea ezinbestekoa da. Epea: azaroak 24.

Lana

• Oñatiko udalak, Udal liburu-zain bat kontratazeko deialdia egin du. Kontratatuena xedea egungo langilearen ordezkapena betetzea da, egun erdiko kontratuaz. Epea: azaroak 23.
• "Ballet Nacional de España. INAEM" k, bost plaza betetzeko entzupenak egingo ditu abenduaren 16an. Urtebeteko behin behineko kontratoa egingo da. Epea: abenduak 5

Ikastaroak

• Gazteei zuzenduta, "Txotxon-

gilo tailerra" Bergarako Taun-Taun kolektiboaren eskutik. Abenduaren 26an hasita 30era arte, guztira 10 ordu. Ikastaroa, IMIko lokaletan izango da, arratsaldeko 5etatik 7etara. Prezioa 5.000 pta.(klaseak eta materiala barne), 3.500 pta ikasle eta langabetuentzat. Plaza mugatuak.

Lehiaketak

• "Pasaia Gazteria 95" IX. komiki lehiaketa. Gipuzkoarrak diren 15 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Orijinalak, zuribeltzean eta tinta txinaz eginak izan beharko dira. Gaia librea. Epea: azaroak 20.

"Gazteria, ba al dakizu zure belaunaldia ez dela edertasunez eta askatasunez beteriko bizitza desiatzen duen lehena?"

ALBERT EINSTEIN



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Zuk eraman... ezinso dugu!



Jose Aranzabal -ek
zure erosketak plazoka
ordaintzeko txartel bat eskaintzen dizu.

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz, 15 • Tfnoa: 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2 • Tfnoa: 79 18 92

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamentetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.